

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1991ko Martxoak 8, 98. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean




**FEDERIKO
KRUTWIG,**
Euskadiko
etorkizun
berria
aldarrikatzen

Hordagoa bizitzari

Jubilazio garaia

Joseba

ARRASATE KIROLAK



Kontzeiño 8,
Tfnoa: 79 46 12



SAN FRANTZISKO XABIER
IKASTOLA

25 URTE KALITATEZKO IRAKASKUNTZA • EUSKARAZ •

.....
1991-1992 IKASTURTERAKO IKASTOLAN SARTZEKO
IZEN-EMATE EPEA IREKI DA
.....

Kalitatea Irakaskuntzaren Erreformatan:

- 16 urte arte luzatzeko aurrepauak emanez.
- Irakaslegoa aldaketei aurre egiteko hornituz.

Kalitatea Proiektu desberdinetan:

- Eskolaurrea eta Hasiera zikloen arteko elkarlotura.
- Ingelesa 1go mailatik aurrera.
- Ordenadoreen erabilpena.
- Teknologia 7 eta 8. mailetan.

Kalitatea Euskalduntze prozesuan:

- D eredu; jatorriz euskara duten ikasleentzat.
- "Murgiltze" eredu; jatorriz gaztelania duten ikasleentzat.

Kalitatea Zerbitzuetan:

- Auzoetan kokatua.
- Geletan haur-kopuru txikia.
- Orientazio departamendua:
 - Psikologia
 - Logopedia
 - Heziketa berezia
- Jantokia eta garraioa.

Izenak emateko epea: **martxoan**.

Izenak emateko tokia: **GAZTELUONDO (Ikastola berria)**

Ordua: **4etatik 6etara**.

**ARRASATE
PRESS**

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Joxe Aranzabal

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarría. Arantzazu Loidi

Publizitatea eta harpidetzak:

Josune Biteri
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak:

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Txipi Ormaetxea.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Loramendi eta Zaitegi, ikasbide.

Igande euritsuetako arratsaldeetan, etxeko epeltasunak kanpora ateratzeko gogoia ezabatzen dizula, irakurketak une goxo asko ahalbidetzen ditu. Eta ez dira gutxi, liburu eta idazkien artean aurki daitezkeen ezustekoak. Aurkikuntza politak, sarri, irakurtzearen ariketa berez justifikatzen dutenak. Horietako bat izan dut nik gaur; Jokin Zaitegi zenak-Izurtza izengoitia erabiliz Euzko Gogoaren lehen zenbakian (1950- urtarria)- bere ikaskide izandako Juan Arana "Loramendi" bedoñarrari eskainitako artikuluan, zenbait zertzelada bitxi azaltzen dizkigu. Niretzat ezezagunak zirelarik, lerro hauetara ekarri nahi izan ditut horietako batzuk. Dakusakigun:

"Bedoña auzotik lauzpabost mutiko etortzen ziran Arrasateko Udal-ikastetxera: ori dala-ta, Yon aurrakin ikaskide izan nitzaizun. Mundu izenez Yon edo Juantxo zeritzan. Erderaz irakasten bai-ziguten, ta Yon aurrak ez zun azaldu umetan oso buru argia. Arritzekorik ez da. Euzkalduna umetan buruz atzeratuxe omen dator. Euzkaldunari euskeraz irakatsi-ezker, orrelakorik ainbestean ez litzake gertatuko. Izakeraz ere, beldurtxamarra zen Bedoña.

Basoan eizatutako otsokumea zirudina. Alare, biotz oneko adiskidea.

1919garren Orrilean badoa Oiazun Aita izerdi patsetan Aretxabaletatik gora. Bi ikaslegai aztertu ta eramaten ote zituan, ba. Ta biak ikusita ta eramatea erabaki ondoren, beste mutiko bat ere ikasle yoango ote litzaken edo. Yo du onen etxera. Ta soroan arkitu du ama.

— Zer dabil emengo alde?

— Eizean...

— Eizian? Ezkopetarik ez darama, ba.

— Mutiko eizean nabil.

— Mutiko eizean?

— Non dezute zuen semea?

Ta ona non datorren iturritik Juantxo. Berarekin hitz egin du. Ta baiezkoa artu ondoren, orra mutilla Altsasura. Arrezkero, noizik behinka aren berri izaten nun: beraren amagandik nere amaren bidez goraintziak bialtzen zizkidan ikaskide laztanak.

Mendibitsu basetxeko semea izaki, mendietako zugatzak ezagunak zitun: lizar, zur-txuri, erki, pago ta zumeak. Goroztiz makilla egiten bazekin. Iyak diran tokietan ura arkitzen zuen ardientzat. Lizar-txilibitua yotzen ere bazekien. Bazun ezpala olerkari izateko".

Josemari Velez de Mendizabal

ZANGITU C. B.

PINTURAK ETA PAPERA PINTATUAK

Helbide berria: OLARTE 29,

Alfonbra-likidazioa

Otalora

1ean



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

BERANGO

Aroztegia orokorra
sukaldeko altzariak
kanpo eta barruko atekak

Legarreko pabiloi industrialak
(behea) Tfno: 79 01 92

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

A. ZANGITU

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE
Tfnoa: 76 19 54 BERGARA



BELUN
taberna

Lagunarte bikaina

Garagarza auzoa z/g Tfnoa: 79 61 14

ARAMAIO
okindegia

Maisu Guridi 3,
Tfnoa: 79 36 46

Ikasleak Intsumisioaren alde

Otsailak 28, osteguneko greba deialdia. B. O. ko ikasleak greba egin dugu intsumiso eta desertoreen alde egin nahiz.

Jakina denez, Euskadiko jende ugari agertu da gerraren aurka. Gero eta jende gehiago soldadutzaren aurka ageri da. Gu Almeneko ikasleak eritzi honetakoak garenez, desertore eta intsumiso guztiei eurekin bat gaudela adierazteko gure laguntza morala ematen diegu. Soldadutzaren arazoa gero eta larriagoa denez, arrazoi gehiago dago bere aurka borrokatzeko. Guzti hau esanez gure eritzia garbi geratu dela uste dugu.

Gora intsumisioa eta behera soldadutza, ea behingoz berarekin bukatzen dugun.

Almeneko-B-02-ko ikasleak

Gudaren inguruko hausnarketa

Golkoko guda bukatu da, ofizialki behintzat. Baina ondorioak beste egun askotako ardura eta berba leku izango dira. Hainbat gauza esan, idatzi eta eztabaidatu da. Heriotzak, sarraskiak, suntsiketak salatu dira batetik eta bestetik. Azken batean erantzunkizuna eta agintea daukatenez, hotsasun edo hobeto, hozkeria gogorrez antolatu eta egin dituztela gauzak, esan dezakegu. Norberari komeni zaiona egin, ondo ez datorkidana inork ez dezala jakin, ematen ditudan berriak ondo neurtuak eta egiten ditudan sarraski, basatikeria eta ankerkeriak ahalik eta isilen euki. Gehiago egingo nituzke, baina neurritz eta zuhurtasunez jokatu behar da izen onik ahal dela ez galtzeko, herri eritzia nire kontra jar ez dadin.

Batez ere, haur eta emakumeen heriotzak asko eta asko hunkituta uzten ditu. "Ez dago eskubiderik"; "Zer egiten dute agintariek"; entzuten da sarritan. Kalera ere atera da milaka eta milaka pertsona, protesta batean, kontzientziak astindu nahian, zerbait egin behar dela eta mugituz eta aldarrikatuz.

Datorren tokitik datorrela, zerbait egin beharra dagoela deritzot. Gaurko gerra eta armak inoiz ere onartzerik ez dagoela esan daiteke. Azken batean herri edo lurralde baten kontra joango dira, guda eta instalazioak aipatzen eta errepikatzen dira, egin eta bota, orde, min gehien egiten duten tokitara, jausten dena jausten dela. Mundu guztiaren gainera bota balituzte bezala hartu eta protestatu beharra dago.


Baina gauza ez da hor bukatzen. Gure erruki eta hunkitzea edo haserretzea ez da nahikoa, ez eta protesta egitea ere. Izan ere, esaten digute ia ia segunduko ume bat hiltzen dela goseak jota mundu zabalean. Ez etxe, ez ikastola, ez maisu, ez sendagile bizi direla esaten digute, milioiak eta milioiak direla.

Eta Bagdad-eko edo Basora-ko haurrak eta emakumeak beste erru daukate. Baina, edo askotan esaten digutelako edo ohitu garelako, horrelakoei ez diegu hainbesteko inportantziarik ematen. Baina ez ote da izango, eta hau da nire susmoa, gose hori gure jokaeraren ondorio bat dela konturatzen garelako?

Gaurko mundua gero eta txikiago egiten ari zaigu, denek edo gehienek dakite besteak nola bizi diren. Goseak dagoenari derrigorrez sortu behar zaio amorrua edo egon ezina, besteak gehiegian ari direla jakiten duenean.

Munduak, dagoen bezala, horrelako alde handiekin jarraitzen badu, zenbat Sadam Husein edo antzerako izango ote ditugu.

Paulo Letona



Zer iruditzen zaizu feminismoa?




Isabel Bueno
(Etxekoandrea)

Ondo iruditzen zait, ez dakit nola esan, emakumeentzat atera daitekeen guztia ondo dagoela iruditzen zait, baina pasatu barik.



Xabier Ezkurra
(Ikaslea)

Horri buruz ez dut sekula gehiegi pentsatu, baina ondo dago bakoitzak berak nahi duenagatik lan egitea. Ez dakit zer esan gehiago.



Iñigo Irasuegi
(Langabetua)

Niretzat feminismoa nekak zerbait lortzeko daukaten bidea da. Emakumeak zapalduta daude eta oso ondo iruditzen zait.




Miren Ozaeta
(Ikaslea)

Batzuetan, feministegiak direla uste dut, baina alde batetik arrazoia daukate.

LENIZ

AUTO ESKOLA



GIDABAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!

ARRASATE - ESKORATZA



**GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA**

Otalora Z/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE

KOPIOTXOA

Fotokopiak
Planu-Erreproduzioak
Enkuadernazioak

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82
ARRASATE

Memesa

79 42 22



olioak, *Artea*
lientzoak,
akuarelak eta
eskulanak
Ferrerias 25

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larrialdiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
	77 07 21
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziazak	45 87 44
--------------------------------	----------

UDALTAINGOAK

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTAILEAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK


Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK

Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	79 87 77
--	----------



8 OSTIRALA

• • •

- Zinea: Amaia. "Muerto al llegar", 10.30etan.
- Alai. "Todo el mundo gana", 7 eta 9.30etan.
- Hitzaldia, "Emakumeari buruz", Santamainan arratsaldeko 4etan.
- Emakume Asanbladak antolatuturik manifestaldia, Sebero Altuben arratsaldeko 7.30etan.
- AEDren Batzar Nagusia Montterronen, arratsaldeko 7etan.
- Organo Kontzertua, parrokian arratsaldeko 8etan.
- Goardiako farmazia:-egunez: Aurora Ruiz, Maala. -gauetz: Camacho, Bergara.

9 LARUNBATA

• • •

- Zinea: Alai. "Linea mortal", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Euskal dantzak, Gasteizko Adurtza eta Arrasateko Lore Gazteak taldeekin, Amaian, gaueko 10.30etan.

Kirol Agenda

FUTBITOIA

• • •

- Zaldibarko futbito txapelketaren barne 12 partidu, larunbat eta igandea bitartean.

ESKUBALOIA

• • •

- Arrasate Kirolak eta Ereintza taldeen arteko partidu, Musakolako kiroldegian arratsaldeko 6.30etan.

- Goardiako farmazia:-egunez: Morales, San Andres. -gauetz: Puy, Bergara.

10 IGANDEA

• • •

- Zinea: Alai. "Linea mortal", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Korrikaren aldeko diru bilketa, Portaloian eguerdiko 12etan.
- Goardiako farmazia:-egunez: Azkoaga, Ferrerías. -gauetz: Puy, Bergara.

11 ASTELEHENA

• • •

- Zinea: Alai. "Linea mortal", 7 eta 9.30etan.
- Hitzaldia, "Irakaskuntzaren hizkuntz ereduak eta ondorioak", Montterronen arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia:-egunez: Español, Iturriotz. -gauetz: Guallar, Bergara.

12 ASTEARTEA

• • •

- Zinea: Alai. "Linea mortal", 7 eta 9.30etan.

- Hitzaldia, "Burmuinaren ha-markada", Otalora-Ikasbiden, 18.30.
- Hitzaldia, "Alkohol zaletasuna", Montterronen 19.30.
- Gazteei zuzendutako sexualitate ikastaroaren hasiera, Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan 18.30.
- Goardiako farmazia:-egunez: Corcuera, Musakola. -gauetz: Estella, Bergara.

13 ASTEAZKENA

• • •

- Erakusketa, "Europa 93", Montterronen.
- Hitzaldia, "Drogomenpekotasuna", Montterronen 19.30.
- Goardiako farmazia:-egunez: Irizar, Erguin. -gauetz: Mozos, Bergara.

14 OSTEGUNA

• • •

- Mahaingurua, "Gazteria eta drogomenpekotasuna Arrasaten. Zergatiak eta alternatibak", Montterronen 19.30.
- Goardiako farmazia:-egunez: Amezua, Santamaina. -gauetz: Camacho, Bergara.

FUTBOLA

• • •

- Mondra eta Pasajes taldeen arteko futbol partidu, Atxabalpeko futbol zelaiaren arratsaldeko 4.30etan.


PARAPENTEIA

• • •

- Atxabalpeko futbol partiduaren atsedendian, Korrikaren ekintzen barruan, parapenteen jaitsiera.

Korrika

Korrika Arrasatetik martxoaren 21ean pasatuko den arren, datorren astean hasiko dira egun horren inguruko ekitaldiak. martxoaren 10ean Euskal dantza emanaldia izango da eguerdiz, Lore Gazteak eta Txikitxurekin. Konpartsa eta gaiteroekin batera, hankapaloak ibiliko dira herriko kaleetan. Arratsaldeko 5.15etan Delta eta



Prapente erakusketa izango da Atxabalpen, futbol partiduen atsedendian.

Mendia

• Leixargarate

Murruxorekin Leixargarateko aterpetxerako irteera izango da datorren jai-zubian. Hogei lagunentzat izango da lekua eta izenematea Arlutz tabernan eta lokalean egin ahal izango da. Prezioa: 2.000 pta. bazkideentzat eta 500 gehiago beste guztiarentzat.

• Izipizte

Murruxok berak antolatuta, igande honetan, hilak 10 Izipizterra, Gantzagatik. Irteera goizeko 9etan izango da parte-noian, eguerdian bueltatzeko. Santa Kurtz apaizaren koba bisitatuko da.

• Gredos

Besaide eta Murruxiko Gredos Mendilerora doaz 16, 17, 18 eta 19ko zubia pasatzera. Irteera larunbatean izango da, hilak 16, goizeko 8etan, eta

1991ko martxoak 8




HITZALDIAK

Drogomenpekotasunen aurka

Arrasateko Udalaren Drogomenpekotasunen Prebentzio Zerbitzuak, Lizarra Elkartek, Alkoholiko Anonimoek eta Askagintzak, sensibilizazio programa bat antolatu dute.

Programa honek Arrasaten dauden drogomenpekotasunen aurkako instituzio eta herri-baliabideak sustatu eta zabaldu gura ditu.

Bestalde, euren taide-lana erakusten ahalegintzen ari diren Arrasateko pertsona eta elkarten konpromezu-jarrera erakutsi nahi du, drogomenpekotasunen zergati sozialien aurkako borroka guztien borroka delako. Drogomenpekotasunen aurka ari diren lana zabaldu asmoz, baliabide-gida banatzeko asmoa dago eta hitzaldi-sorta bat ere antolatu da. Asteartean alkoholismoa, asteazkenean drogomenpekotasuna, eta ostegunean Arrasateko gazteei eta drogomenpekotasunari buruz hitz egingo da. Hitzaldi guztiak Monterron jauregian burutuko dira, aipatutako egunetan arratsaldeko 7etan.



preziolari dagokionez, 2.500 pta. bazkideek, 2.000 gazteek eta 3.000 gainerakoek, bidaiarengatik bakarrik. Izenematea martxoaren 11, 12 eta 13an egin daiteke, Besaideren egoitzan arratsaldeko 7etatik 8.30etara, eta baita Murruxon ere.

Erakusketak

• Pintura

Amuska emakumeen elkarteak antolatuta, teknika mistoak erabiliaz Maite Carrillo, Maite Beitia eta M Jose Azkarete egindako lanak erakutsiko dira bi asteburutan, Eskoriatzako Kultur Etxean. Martxoaren



9, 10, 16 eta 17an 6etatik 8etara eta igande eguerdiko 1etik 2etara.

• Marrazkiak

Amaia Gurrutxagaren marrazki erakusketa, martxoaren 22tik 25era, Eskoriatzako Kultur Etxean, aurrekoaren ordutegi berarekin eta Amuskak antolatuta.


Musika

• Datorren hilaren 17an Ramones, Estatu Batuetako rock taldeak Bergarako Txibisto dantzalekuan kontzertua eskainiko da, gaueko hamar t'erdietatik aurrera. Euskal Herrian bi aldiz egonak dira Ramones taldeko partaideak, eta Txibistora egingo duten bisitaldiarekin



Deba Garaian lehengoz izango dira. Dudarik gabe, Bergarako dantzalekuan eskainiko duten kontzertuan, ikus-entzule ugari izango dituzte amerikarrek.

• Musika munduan beste kontzerturik ere izango da aste-buru honetan. Arrasateko Udalak hil honetarako antolatu duen organo kontzertuen sortan, gaur arratsaldeko 8etatik aurrera, Gurutze Uribarren eta Tere Gonzalezen txanda izango da. Bi emakume hauek egiten duten musika entzun nahi duenak zita parrokiara dauka aipatutako orduan.



• Goikobaluk bi autobus jarri ditu Galesera joateko, martxoaren 28tik apirilaren 6ra. Oraindik plaza libre dago. Deitu Goikobalura.

“ Arantza Mendizabalekin batera, estrenatu berri du eskainoa Madrileko jauregian. Aurrekoa eta Koro Garmendiarekin, emakumezko euskal diputatu taldea osatzen dute, nazionalistak, baina ez EAJkoak. 31 urtekoa, Esther Larrañaga da hiruretan benjamin, eta Arantza Mendizabal bezala, Eusko Jaurlaritzan sartu den gizonezko kideren baten ordezkotza egitera doa. Hirurek jotzen dute euren burua feministatzat, baina Esther Larrañagak ez du uste euskal gizarte “normala baino matxistagoa denik; beharbada, manifestazio bereziak ditu, poteoa esaterako”. “Emakumea soldadu edo Aita Santu izan ahal izatea aurrerapausua da askatasunean, nahiz eta niri ez gustatu emakumea bi horietatik bat ere izatea”.


(DEIA egunkariak)

“ Guk pentsatzen dugu egunkari alternatibo bat egin behar dela (...). Guk pentsatzen dugu familiarentzako pentsatua izan behar duela eta distribuzioan ere bide alternatiboak aurkitu behar ditu.

Familiarentzako egunkaria, gauean ere irakur daitekeena, haurrentzako zerbait izango duena, etxeoandrentzako zerbait izango duena, aitarentzako zerbait izango duena, herrietako berriak jasoko dituen: Arrasate Press eta Bermeokoa... eta Goierrin daudenak eta abar. Horiek ere, zati bezala bere egingo dituen, errespetatuaz bakoitzaren autonomia ...”

(Joseba Arregik Euskadi Irratiko “Iturri Onetik” saioan)

Zeintzu dira AKTn eman den lanpostuen beherakadaren arrazoiak?



Orokorrean oso urte txarra izan dela esan daiteke, bai Estatu mailan, baita Autonomi Elkarte mailan. Dударik gabe, beste hainbat tokitan eragina izan duen bezala, urte txarrak gure enpresen taldean ere eragin handia izan du. Hori izango litzateke arrazoi nabariena.

Guk erabiltzen ditugun estatistikek ez dute, horrela gainbegirada batean, arrazoi zehatzak emateko gehiegi laguntzen. Orokorrean, bai munduan eta baita Estatu espainarrean ere, 90ean industri iharduerak ez du, aurreko urteekin konparatuz gero, aurrerapausurik eman.

Autonomi Elkarteko kasuan aurrerapausurik ez ematez gain, jaitsiera txiki bat jasan behar izan da, %0,1eko hain zuzen. Horrek esan nahi du, industri mailan noski, industrigintzan ez dela inolako gorakadarik eman, ez delako ia ezer saldu.

Beraz, industrigintzan inolako gorakadarik ematen ez denean eta emankortasun edo produktibitatean igoera dagoenean, beti lanpostuetan eragin zuzena izaten du, zeren hazkundea begetatiboa besterik ez bada, beti igotzen bait du %4 edo %5ean.

Bestalde, badirudi Golkoko gerra bukatu eta gero gauzak finkatzera doazela eta orain arteko krisialdia zirkuntziaziala izango dela, errekupeazio sintomak badira eta: petrolioaren salneurria finkatu egin da, inbertsioetan ere aurrerapausuak eman dira... eta ondorioz berriro ere lanpostuen gorakada espero behar da.

Francisco Javier Sagasta,
Lan Kide Aurrezkikoa


FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



PEÑACOB
Auto-Eskola

Zarugalde 46,
79 14 01

ARRASATE

MIREN


APAINDEGIA

Zarugalde 23, 2. Ezk.
Tfnoa: 79 96 90 **ARRASATE**

Antzuola

• Euskadiko txapelketan ezezik Espainiakoan ere Amaia Zabaletak domina lortu zuen, brontzezkoa, eta luzera jauziko frogan. Amaiak 5.16 metroko jauzia egin zuen, irabazleak 11 zentimetro atera zizkiolarik.

• Uholdeak izan zirenetik Antzuolatik pasatzen den errekarari irtenbideren bat eman behar zaiola eta, makina bat bilera eta ahalegin egin dira. Bazirudien, azkenik erabakia joan den asteko Gobernu Batzordean hartuko zela, baina Uren Konfederazioak proiektu alternatibo bati buruz zehaztasun bat jakin nahi duela eta, erabakia hamabost egun atzeratu da.



Bergara

• Telesforo Monzon bergararra hil zeneko hamargarren urteurrena bihar betetzen dela eta, Bergarako Herri Bata-sunak ekitaldi ugari antolatu ditu. Arratsaldeko 7.30etan, Jon Idigoras, Patxi Zabaleta, eta Koldo Izagirrek hitzaldia eskaini zuten UNEDeko areto nagusian, "Monzon politiko eta olerkari" izenburupean.

Bihar eguerdiko ordubatean Telesforo Monzon jaio zen etxean, Olaso jauregian hain zuzen, oroimenezko plaka bat jarriko da. Gau aldera berriz, pilotalekuan jaialdi-omenaldia burutuko da. Pantxoa eta Peio kantariak, eta Xabier Amuriza eta Jon Sarasua bertsolariek hartuko dute parte.


• Ignacio Moreno, bergarar ileapaintzaileak, Gipuzkoako ileapaintzaileen lehiaketan laugarren postua lortu zuen. Bergararrak ilea mozketa eta fantasiako orrazkera egin behar izan zituen.

Oñati

• Itziar Tatiegi, Egin-Debaldeak Oñatin duen korrespondentsala kultur eta kirol batzordetik bidali zuten PNV eta EEko zinegotziek. Aipatutako partiduetako zinegotziek ziotenez, kazetariak ez zuen han egoteko eskubiderik; HBko zinegotziek aldiz, aipatutako batzordeetan edonor egon zitekeela zioten, eta kazetariari elkartasuna adieraziz harekin batera utzi zuten batzordea.

Eskoriatza

• Munduko sokatira txapelketen barruan, 640 kiloko kategorian Eskoriatzako taldeak laugarren postua lortu zuen. Joan den astean sokatitulariei omenaldia eskaini zitzaizen. Hemendik ere, zorianik beroenak.



umezaintza

**1991-92
IKASTURTERAKO
MATRIKULAZIO
EPEA IREKIA DA**

Urte 1etik 6 urterarteko umeak


Matrikula epea: martxoan

Lekua: Jose Luis Iñarra 30-32

Tfnoa: 79 01 02

Orduak: 9.30-12.30 eta 14.30-16.00

Erdiko kale. 79 19 37



errias. 79 87 62

EPELDE

argazki denda

Iturriotz 24

Irtenbiderik ez azokan

Azokako saltzaileek ez dute Udalak salmenta postuak adjudikatzeko proposatu duen lehiaketa publikoko sistema onartu. Hortaz, Udala eta saltzaileen arteko auziak oraingoz ez dauka konponbiderik, baina seguruen gehiagotan bilduko dira akordioaren bat lortu nahian.

Kultur taldeei laguntzak

Udaleko kultura sailak Udalaren dirulaguntza jaso gura duten kultur taldeei jakin arazi nahi die, euren eskabideak martxoaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dituztela.

Ingurugiro Eskola inauguratu

Denbora bat martxan badarama ere, gaur arratsaldean Udako Ingurugiro Eskola inauguratuko dute. Inaugurazioa dela eta, Aldundi eta Udaleko ordezkariak Udalan izango dira.

Txominen omenaldia

Amaitu antzokia jendez gainezka agertu zen Txomin Iturbe zenaren heriotzaren laugarren urtemuga zela eta. Mitin-jaialdiaren barnean Xabier Zubizarreta, Rafa Diez, eta Jon Idigorasek hitz egin zuten. Horretaz gain Kaxiano eta Anje Duhalderen saioa ere entzuteko aukera izan zen, baita Jon Sarasuaren bertsoak.



Julxo argazkia

Txandaka

LUR IXILDUA GARA

Arrasateko Emakumeen Asanbladako emakumeok, urte askotan zehar ikusi izan dugu gure lokaletik pasatzen diren emakume askoren arazoa, azken urteotan bereziki larritu bada ere. Adin guztietako emakumeak, ezaugarri eta baldintza ezberdinetakoak, baina ezaugarri amankomun berarekin: daramaten bizimodu jasanezina (tratu txar fisiko eta psikikoak; umilazioak, mehatxuak, banaketari aurre egiteko baliabiderik eza...).

Euren "kasu pertsonala" etxetik ateratzeko euren buruarekin borrokan egin ondoren etortzen dira gugana. "Niri bakarrik gertatzen zaidan gauza" ez dela konturatzea asko kostatzen da. Azken finean, ez digute alperrik erakutsi, eta oraindik ere guk nahi baino jende gehiagok pentsatzen du "gauza horiek ez dutela zertan etxeko atetik irten".

Eta horrela, badira emakumeak min eta bakardadez osatutako mundua bizi izaten eta "barruan" jasaten bost, hamabost edo hoge urte daramatzatenak. Denetarako izan du denbora, baita ohitzeko ere, eta zorionez oraindik "bera" ez duela bere lagunak "oraindik hil" pentsatzen dute momenturik lantzenetan.

Horrekin kontraesanean, erabat mezu ezberdinak egingo du eztanda komunikabideetan erakundeen aldetik (egunotan batez ere): "Nahi baduzu, ahal duzu".



Julia Monge (*)

Arrasateri eta gure Udalari buruz, azpimarratzekoa da oraindik ez dagoela azaltzen ari diren arazoei erantzun eta irtenbide emango dien inolako programarik. 90eko udan kaleratu zen informazio lotsati hura eta hilabete batzuetara, eskainitakoaren ebaluazio pobrea besterik ez. Eta lasai, gainera!

Arazoak dituzten emakumeei, tratu txarrak jasaten dituztenei, ama ezkongabeei... zerbitzua eskaini, aholkua eman eta lagunduko dien zerbitzuren bat ez al da beharrezkoa Arrasaten?

Ez al da ridikuloa gaur egun emakume batek babes-etxea behar izan eta Arrasaten ez dagoelako Zumarragara joateko aukera eskaintzea ere?

Non dago Udalean ordezkartiza duten alderdien sentsibilitatea, honelako arazoak aztertzeke?

Badirudi lana banatuta dagoela oraindik ere: erakundeek neurri barik hedatzen dute emakumearen arloan egiten duten apurra eta guretzat geratzen da gainerakoa (beste gauza batzuez gain...) (atentzioa eskaini, kontsolatu, abokatu-tan ibili, bortxaketak salatu..., eta gaur egunean oraindik, abortatzeko lekuei buruzko informazioa eman).

Gure aldetik, martxoaren 8 honetan, Emakumearen Nazioarteko Egunean, kalera irtego dugu gure errebindikazioekin, eta norbaiti "topiko eta errepikorra" iruditu arren, zoritxarez, egunerokoa eta erreala da.

(*) Arrasateko Emakumeen Asanbladakoa

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana 12, ARETXABALETA

**Osorik
pub**

Ignazio Zuloaga kalea Arrasate



Ostaleritza eskolan talde txikitik egingo dira praktikak

Ostaleritza eskola Oñatin

Datorren ikasturtean Antia jauregiko hotelean

Datorren ikasturterako, Goi Mailako Ostalaritza Eskola irekiiko da Oñatin, Saiolanen ekimenez eta Eskola Politeknikoaren babespean. Eskola, Antia jauregian eraikitzen ari den hotelean kokatuko da eta bereziki Nazioarteko Institutu Soziologikoari zuzendua egongo da. Eusko Jaurilaritzaren homologazioa izango du. Ikasketa ereduak irakaskuntza iraunkorra, lanbide irakaskuntza eta irakaskuntza arautua lirateke. Azken bi hauek bi adarretan banatuko dira, alde batetik ohizko batxilergoa baina praktikak zerbitzu arloan eginez, oraingoz lau urteko ikasketak, gero Bordelen eta Suitzan segitzeko moduan. Epe luzera, hala ere, unibertsitate mailako ikasketak bertan burutzeko asmoa dago. Lehen urtean 48 ikasle baizik ez dira hartuko, oraingoz Deba Garaikoak, hautaketa nola egingo den zehaztu barik badago ere.

Oñatin egingo diren ikasketetan

garrantzi berezia izango dute, jakina, ostalaritzarekin zerikusia duten arlo ezberdinetako praktikek eta sukaldaritza, harrera, administrazioa, "marketing"-a, jangela, sala eta solairuetako zerbitzua ikasiko dira, hasieran denek dena eta espezializazioa ondoren. Hizkuntzen aldetik, euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa eta alemana irakatsiko dira, eta eskolaren promotore taldea, espezializazio ezberdinetako zortzi lagunez osatua, izango da irakasle.

Hoteleko obrak ekainerako bukatzea espero da, eta eskola, alboko eraikinean kokatuko dena, irailean amaituko da. Hotelaren langilegoa ikasle eta irakasleek osatuko dute gehien batean, eta bezeroei dagokienez, dagoeneko badaude finko batzuk.

Proiektu honen garapena Oñatiko Udala, Eusko Jaurilaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz izan da posible.

Usteak uste

Katea ez da eten, zorionez. Albina Madinabeitiak, Arrasatek inoiz eman duen txirribitaririk onenak badu jarraitzaileirik mondragoetar gazteen artean. Esate baterako ale honetako 29. orrialdean aurkezten dizuegun Patricia Esparza txelajole gaztea.

Hamaika anai-arrebaren artean, hamaika, hezi den Patricia sekulako bidea jorratu du dagoeneko musika arloan. Atzean gelditu dira Arrasate Musikalen eman zituen lehen urratsak. Harez geroztik Bartzelonan, Holandan eta orain Gironan ari izan da musika ikasketak sakontzen.

Aurten UBI-COU ikasketak utzi barik, Estatu mailako txelajole gazte onenen artean sartu da. Hamazazpi urte baino ez ditu, eta berari gehien atsegin zaion munduan lan bikaina egiten ari da. Ez sakrifizio barik, jakina. Patricia ordu asko eta asko ematen ditu txeloan, eta asteburu gehienak lanean igarotzen ditu.

Mundu honetan bobilis-bobilis egotearekin ezer gutxi aurreratzen da. Patricia eta Holandan txirribita ikasketak egiten dagoen haren ahizpak horrela ulertu dute.

Albina, eta herritar guztiok, harro egon gaitzeko martxoaren 8 honetan Patriciaz eta hura bezala, inguru zail batetik irtenda, borondatez eta ekinaren ekinez, bakoitzak gustoko duen alorrean aurrera doazen guztiez.

Joxe Aranzabal

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe 2,

Erakusketa: Sancho Abarka 6,

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



LEKIN

ileapaindegi mistoa

Erguin 15, etxebehea.

Tfnoa: 79 80 23 ARRASATE



Euskal Herriko eta beste hainbat lekutako ordezkariek izango dira partaide

Prentsa lokala aztergai

1. Ihardunaldiak azaroan Arrasaten burutuko

Azaroaren 11, 12 eta 13an, Prentsa Lokalari buruzko I. Ihardunaldiak izango dira Arrasaten, AEDk antolatutarik. Euskal Herriko kultur elkarte, gizabanako zein erakundeei prentsa lokalaren ezaugarriak eta esperientzia konkretuen berri eman eta halakoak sortzeko eman beharreko urratsak azaltzea daukate Ihardunaldiok helburutzat.

Juan Marciá Mercadé Prentsa lokala eta komarkalaren potentzialitatea izenburupeko txostena aurkeztuko du lehen egunean, eta prentsa lokalaren

ezarpen eta zabalpenari buruzko maingurua izango da. Gai horri buruzko txostenemaileak: Sergio Prieto Frantziatik, Asier Aranguren Euskal Herriatik eta Sita Villaró Kataluniatik. Hilaren 12an banaketa arazoak, eta prentsa lokaleko enpresen egitura ezberdinak izango dira aztergai, eta baita finantziabideak ere. Azken egunerako utziko dira Katalunian sortua den Federakundea eta Euskarazko prentsa lokala osatzen duten argitalpen ezberdinen artean sortu nahi dena.

Zentsua eta Padroia

Udal Errolda egiteari ekin dio argazkiko taldeak, eta falta diren batzuk. Hilabete izango dute Arrasateko etxe guztietan pasa eta herritarren datuak biltzeko, eta nola ez, denon laguntza behar izango dute. Familiak kide guztiei buruz eskatzen dituzten datu guztiak berehala eman ahal izateko, nortasun agiria eta famili liburua eskura izatea eskatzen zaizue.



JAIOTZAK

Sánchez Ruiz, *Noemi*, otsailaren 24ean.
Agirreurreta Urreta, *Ibai*, 26an.
Rezusta Muguruza, *Aritz*, 28an.

VICTOR RUIZ MELGAR

Pintorea

Erdiko kale 32, 4.

79 12 63 (9etatik 1etara eta 4etatik 8etara)

ARRASATE

IBARRA Garajea S.A.



EBRO
NISSAN

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

LURRINDEGIA

ERTZ

OPARIETAKO ARTIKULOAK

Ferrerias 28, B. Tfnoa: 79 08 70 Arrasate

Monte taberna

Maalako errabala 11, Tfnoa: 79 20 56



Gazteen artean da euskararen erabilpena bajuen

Biztanleen %15a euskaraz

Azken kale neurketak emandako datuen arabera

Arrasateko biztanlego osoaren %15ak bakarrik erabiltzen du euskara kalean, otsailaren hirugarren astean Udaleko euskara zerbitzuaren aginduz egindako neurketak dioenez. Uribarri, Santamaina, San Andres, Musakola eta Erdialdean egin dira neurketok, ordu eta puntu jakinetan, Siadecoren inkesta metodoak erabiliaz egin ere. Aurtengoa laugarren urtea da Arrasaten neurketa egiten dela, eta aurreko urteetan bezala, haurrak -14 urtetik beherakoak- eta 65 urtetik gorakoak dira auzo guztietan

euskara gehien erabiltzen dutenak, (%25,79) eta gazteetan %6,73ra jaisten da erabilpena. Auzoei dagokienez, erdialdea gertatu da, beste urtetan bezala, euskaldunena, adin ezberdinetakojendeari egindako neurketak diotenaren arabera.

Aurreko urteko datuekin gonbaratuz, erabilera jeitsi egin da San Andresen (3 puntuz), erdialdean (2) eta Musakolan (7 puntuz). Igo egin da, bestalde, Santamainan eta Uribarrin (4 puntu eta erdi).

Plenoko erabakiak

Zinegotziek lan gutxi izan zuten azken plenoko gai zerrenda onartzeko orduan. Puntu guztiak aurkeztu bezala onartu ziren: Santa Barbararako parke-rako lur lagapena, Uribe eta Garagartza arteko lurren birdefinizioa, Uherkape eta Laukale unitateentzako konpentsazio batzordeak onartzea; atzera bota zen frantziskotarren errekurtsioa Ospitale Zaharraren zati bat eskatuz. Mugarritteko plan partzialean zenbait aldaketa egingo da, adibidez bizikletentzako 2 metro t'erdiko zabalera izango duen bidea.

Alberto Bonetek jarritako errekurtsioa zela eta, Udala Euskal Herriko epaitegi gorenean aurkeztuko da bere interesak defendatzera. Azkenik, Arantxa Jauregibarriari eman zitzaion Toki-Arri Jubilatuen Etxeko ileapaindegian lana egiteko adjudikazioa.

Presoen lekualdaketak

Hiru preso arrasatear gartzelaz aldatu zituzten joan den astean. Unai Parot Herrera de la Manchako espetxetik Puerto de Santa Mariako espetxera eraman zuten; Pedro Guridi "Pedrotxo" Puerto de Santa Mariakotik Alkalakorra, eta azkenik Ramon Bidaburu "Txarra" Langraitzekotik Alkalako espetxera.

Bestalde, astearteroko enkartelamenduan 45 lagun bildu zirela aipagarria da.

GORROSTI

Jatetxea

Arimazuri plaza Tfnoa: 77 06 07 ARRASATE

Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

EPELDE

argazki denda

Iturriotz 24

Alkategaien izenak kaleratzen


EMK-LKIk zerrenda aurkez dezake Arrasaten

Hiru dira oraingoz, Arrasaten maiatzaren 29ko Udal Hauteskundeetarako zerrendaburuak erabakita dituzten alderdi politikoak: HB, EA eta EE. EAJk laster jakin dezake eta atzeratuen dabilena PSOE da.


Arrasate

HBk Xabier Zubizarreta aurkeztuko du berriro alkategai. Hori da oraingoz erabakita dutena. Hil honen 21ean bilera izango dute zerrenda behin betiko osatzeko. Jaso dugun informazio ez ofizialaren arabera, baliteke oraingo bost zinegotzietatik bik ez errepikatzea.

PSOEn gauzak ez daude bat ere argi. Antza denez, Udaletxean 12 urtez egon ondoren, Jose Luis Lanak ez du gogo handirik zerrendaburu izateko. Joaquin Benitezzen izena entzuten da indarrez, baina partidu barruan ez dituela guztiak bere alde ematen du. Mariano Arrieta-ren izena oraingoz baztertuta omen dago, baina bi emakumerenak entzuten dira lehen bost tokietan sartzeko: Blanca Roncal Eskualde Ospitaleko zuzendaria eta Donostian lanean dagoen S. Andresko abokatu batena. Dena den, probintziako kongresuaren ostean bilduko da herriko batzarra azken era-



Xabier Zubizarreta
HB Arrasate




Pedro Mari R. de Azua
EA Arrasate



Aitor Oroabengoa
EE Arrasate



Aitor Antxia
EA Aretxabaleta



Koldo Azkoitia
EAJ Artxabaleta

bakiak hartzeko.

EA n seguru da Pedro Mari Ruiz de Azuak errepikatuko duela. Oraingo bost zinegotzietatik hiruk ez bide dute errepikatuko. Xabier Bengoa bestalde, posible da berriro aurkeztea. EAKoak hiru berriak emakumeak izatea nahiko lukete.

EAJk erabakita omen dauka zerrenda, baina alkategaia falta zaio. Dirudienez Xabier Lasagaren atzean egon dira denbora luzean konbentzitu nahian, eta lan eta familia arazoak medio ezetza jaso dutenean, Fagor

inguruko kooperatibista bategana jo dute: bertan jaio-tako 53 urte inguruko euskalduna. Berak ez omen du oztopo handirik jarri, baina familiarekin hitz egitekotan gelditu da. Gaur, ostiralerako, dute bilera eta honen baietza espero da. Entzuten denez, oraingo lau zinegotzietatik, batek ere ez luke errepikatuko.

EEK Aitor Oroabengoa aurkeztuko du alkategai. Larunbat honetan bilera dute zerrenda erabakitzeko. Garbi omen dago Bittor Aranzabal ez dela aurkeztuko be-

rriz, ragorren oso lanpetuta dabil eta.

Baliteke EMK-LKIk zerrenda aurkeztea. Gogoratu lehen legealdian EMKk zinegotzi bat izan zuela, Jose Ignacio Yarza. Oraingoan ez dute garbi euren siglekin egingo duten edo independenteekin osatuko duten.

Aretxabaleta

Sorpresa Aretxabaletan irten da, ze Pedro Mendieta eta Karmelo Azkoitia bezalako pisu astunek jende berriari ireki diote bidea: Aitor Antxia, eta Koldo Azkoitia hartuko dituzte haien lekuak. Lehenengoak S. Frantzisko Xabier ikastolan egiten du lana eta bigarrenak Deba Garaiko Mankomunitatean. PSOEko Pedro Sagarribaik ere errepikatu egingo du. EEK larunbat honetan erabakiko duen artean, Aretxabaletako HBk 24ean du bilera zerrenda osoa tajutzeko.

URONDO
elektrizitatea



- * Elektroiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE



Kontzeino 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE



Argazkia: J. O.

M

ilaka dantzari oinen testigu izandako plazako harri zaharrek ere, euren gogorako esango zuten, "hauek baino trebeagoek hamaika bider zapaldu gaituzte". Gorputz lirain eta hanka arinak bai, baina batzuk besteak baino arinagoak, argi dago eta bakoitzak ahal duen bezala egiten duela. Hori bai, dantzaren armonia zaintzeko ahalegin guztiak egiten dituztela ezin ukatu, bata besteen oinei begira ari dira eta. Hala ere, behar bezalako koordinaziorik ez da somatzen, eta batzuentzat eskuineko hanka denean besteentzat ezkerrekoa. Zortziko berria ote? Harri zaharrek hitz egingo balute...

ANALISI KLINIKOAK, LABORATEGIA


I. Laborra Erdozain

(Lagun Aro, Diputazioa, Prebisa, Asisa, Capisa)
GINEKOLOGI KONTSULTA

Zerkaosteta 17, etxabehea, Tfnoa: 79 20 18
ARRASATE

I R A T I

Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80




Cibeles Moda pasarelak 91-92 udazken negurako moda joerak erakutsi zituen Madrilén. Trafico de Modas deituaren desfileko momentu bat jasotzen du argazkiak, Mariscalek Coby diseinatu zuenaren arropa erakutsiaz.

Arrasateko mutil gazte bat, **Amós Elvira Azkonaga**, Madrilén dago Kazetaritza ikasten eta berak bidali dizkigu Goya sarién saribanaketan atera zituen argazkiak. Eskerrikasko!



A zer arrakasta lehengo larunbateko Andaluzia Egunekoa! Jende asko eta jantzi koloretsu ugari. Sevillana lehiaketan neska mutiko ugarik hartu zuten parte, eta ondorengo dantza jaialdian **Lore Gazteak, Os Galaikos** eta estremeñoak izan ziren. Festa egun handia Arrasate eta Deba Garaiko andaluziar guztientzat. Prestatzen ere lana gogotik egin zutenez, zorionak!

◀ **Mano Negra** Arrasaten! Jende pila galanta Kiroldegian bildu zena, eta kontzertua espero baino luzeagoa, bisetan aberatsa. Talde Paristarreko 7 lagunek oso gustora utzi zuten hurbildutako jendea, saltoka eta geratu ere egin barik. Euren aurretik *Heriotza* arrasatear eta eskoitzarrez osatutako taldea. Errepika dadila!



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
Otzaratzarrak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdiak
Erremintak gordetzeko armairuak
Lan egiteko aukiak

LORATEGI


taberna

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA

J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64

BAZAR
TOKI ON



77 08 15

Izen
PROPIOAK




● **Lorena Perez** eta **Aitor García, Marian Nevado** eta **Belen Arce, Saioa Gómez** eta **Antxoka Raya** arrasatearrak izan dira Al Andalusek antolatutako Andaluzia eguneko Sevillana lehiaketan hurren mailako irabazleak. 9 eta 11 urte bitarteko neska-mutiko hauek *Sueños de Andalucía* dantza taldeko partaide dira, eta Al Andaluseko bazkide.

● **Aitor Arnaiz**, 18, arrasatearra. Donostian izandako Junior mailako txapelketan zilarrezko domina eskuratu zuen, 22.99 marka egin ondoren. Aitor Eskola Politeknikoan ari da ikasten, mekanika espezialitateku modulo batean. Aurrez San Viatorren ibili zen.


● **Elena Arregi**, 24, arrasatearra, Jubilatuen etxetako diamizatzaille izendatu dute beste urtebetez. Elenak sei hilabete egin ditu lan horretan egun erdiz, eta aurrerantzean egun osoan ihardungo da. Elenak gizarte laguntzaille ikasketak egin zituen Donostian.

Arrasate Pressen 100. zenbakia dela eta, berotzen hasia da jaialdi erraldoirako giroa. Aspaldian isildurik dagoen talde arrasatearra ere hasi da entseiuetan, beste taldeekin batera jaialdi bikaina eskaini ahal izateko. **RIP** taldeaz ari gara, dakizuenez okasiorako bilduko bait dira berriz ere. Sarrerak salgai dira dagoeneko, eta *Ikatz* argazki dendak, esaterako, oparitu egingo du sorta bat bere bezeroen artean.

Jose Mari Ormaetxea, 64, eta **Xabier Retegik**, 53, eszedentzia eskatuko dute kooperatibetan SPRI-ra joateko. SPRI Eusko Jaurlaritzaren Industri sailak sortu zuen industriaren sustapen eta birmoldaketarako elkargoa da. Ormaetxea SPRIko Lehendakariorde exekutibo izango da (Lehendakaria Jon Azua Industria Sailburua



J. M. Ormaetxea



X. Retegi

bera) eta Xabier Retegi Zuzendari Orokorra. Ormaetxea LKAKo Zuzendaritza Kontseiluko kidea da, eta Otorako zuzendaria. Aurten jubilatuko kooperatibetan. Xabier Retegi, bere aldetik, LKSKo burua izan da orain arte.

PAUSOKA HAURTZAINDEGIA

ARETXABAETA



Matrikula epea zabalik:
martxoaren 11tik apirilaren 15era.

Ordutegia:
arratsaldeko 6etatik aurrera
Tfnoa: 77 03 77

Zatoz gure instalazioak ikustera

Otalora 27, Aretxabaeta

ETXE-AUNDI

Ostiraletan dastatu gure menu bereziak

3.500 pta. inguru

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

Jubilazio garaia: hordagoa bizitzari

Lehengo lagunei eutsi eta berriak egitea, bakardadeari alde egin eta zaletasunak lantzeko garaia da. Egin nahi direnak egiteko denbora falta izatearen garrantzia.

Hirurogeitabost urterekin, eta orain lehenago, erretiroa iristen da. Bizi guztiko ametsa batzuentzat, eta bizi guztiaren amaiera beste askorentzat, aro berria da pertsonarentzat. Moldatzen jakitea, hortxe dago gakoa.

Bizitza aldatzen denean

Jende multzo handia osatzen du gaur egun Arrasaten jubilatuenak. Bizi esperantzaren igoera, erretiroa gero eta gazteagotan hartzeko joera eta beste faktore asko dira horretan eragiten dutenak. Bizi guztiko iharduerari jaregin eta etxean geratzean, gauza asko aldatzen dira bizitzan, eta aurrez ilusioz hartutako zerbait ez bada, "zer egin behar du hainbeste ordurekin?" pentsatzen jartzeko arriskua dago. Gaur egungo gizartea ez da oraindik ohitu bizitzako azken urte horietarako pertsona prestatzera. Bizi guztiko lanak atsedena zor. Askorentzat, ordea, trauma bihurtzen da ezer egin barik egon beharra, kasu batzuetan

indarrak ere gutxিতuta izan arren ezin bait dute besoak gurutzatuta egotearekin etsi. Horregatik da hain garrantzitsua gaztetan hasita gerorako zaletasuna lantzean, gaztetan ezezik zahartzaroan ere egin daitezken kirol, hobby nahiz lanak egitera zalezteza.

Eguneroko bizitzan, bestalde, etxean egoteko izango duen ordu pilak arazoak sor ditzake gizon ezkonduen kasuan, etxean ikusten ohitze-

Zahartzarorako zaletasunak gaztetatik prestatzea garrantzitsua da

ke egongo bait da emaztea, eta lanaren eta seme-alaben eraginez, ordu luzez elkarrekin eta bakarrean izateko ohitura galdua izan dezake. Ez da aspertze kontua bakarrik, bere etxean lekuz kanpo eta soberan sentitzea ere ger-

ta bait dakioko. Kasuak ugari dira, hala ere, eta adina, familiaren egoera, osasuna, diru iturria... aldagarri garrantzitsuak dira.

Musakola, Erguin, Abarroa eta Santamañako lau etxeetan biltzen dira Arrasateko jubilatuko asko, baina ez daude horiek bakarrik. Orain 7 urte hasi zen Udala etxez etxeko zerbitzua eskaintzen, eta aurten adibidez 42 kasuri ematen zaie laguntza. Gauza direnei edo bakarrik bizi arren euren etxean segitu gura dutenei hala jarraitzeko aukera ematea da zerbitzu honen helburua. Ahalik eta denborarik gehienez bere etxean eta giroan, ahal bada familiarekin mantentzea da kontua. Horrezaz gain, gura ere ez dute gura izaten erresidentziara joaterik askok. Gehienek ez dute parte hartzen jubilatuen etxeetan antolatzen diren ekintzetan. Etxetik irten ere egin barik egoten direnak,



Ileapaindegi zerbitzuan hiru langile dadue Abaroan



Jubilatu etxeetan, jokuan egiteko biltzen dira asko arratsaldetan

edo eguraldi onarekin kalean ikusiko dituzunak gutxi batzuk. Oso antzeko egoeran daude Iturbide egoitzan bizi diren 90 erresidenteak. Kontuan izan behar da horietatik 28 elbarriak direla.

Jubilatu berriak

Lantegietan ere gero eta gehiago dira aurrez jubilatu direnak. Jubilatu etxeetan hala ere, kexu dira beti jende bera eta gero eta zaharragoa hurbiltzen zaialako, eta jubilatu berriek etxe horietarako joera gutxi daukatelako. Hala ere, espezialistek positibotzat jotzen dute etxe berezi horietara joan beharrik ez izatea, betiko lagun talde, zaletasun edo denborapasa ezberdine-

tan jarraitzen duten seinale. Jubilatuentzat leku berezirik gabekoa omen da gizarte ideala, bestelako gizarte biziari eustera. Gainera, pentsio berrien igoerak, negualdian kanpora joateko ohiturak eta beste zenbait arrazoik, areagotu egiten du joera hori.

Arazo zaharrak

Jubilatuaren egoitzen, hala ere, eta juntetan lanean ari direnen artean gehienbat, egina dute Arrasateko Jubilatuak gaur egun bizi dituzten arazorik larrienen inguruko gogoeta. Pertsona jubilaziorako prestatzen ez duen gizartean, hobbyak izateari lan egiteak hartu izan dio beti aurrea, eta berriak jubilatu

nak diren arazoaren artean, etxe ezberdinen arteko ekintzak -koruak, antzerkiak, ikastaroak... -burutzeko lokal handien beharra. Baina badira beste arazo batzuk denei dagozkienak: Arrasaten pa-seatzeko lekuak falta dira, jende askok duen ibiltzeko zaletasuna, arriskutsu ere bada. Herrian, bestalde, ez dago geriatriko zerbitzurik, eta urtetan eskatzen badihardute ere, Euskal Herriko leku gehienetan ez bezala, gure bairadan jubilatuak ez dute garraiorik doan.

Arazoak arazo, inoiz egin ez direnak egiten hasteko, edo betidanik izandako zaletasunari denbora gehiago eskaintzeko garaia da. Ordu gehiago behar izan ditzala egunak, eta beti utzi ahal izan dezazula zerbait, "bihar egiteko"

Karta jokoa

La egunero, baina eguraldi txarrarekin hala ere, jubilatu mordoska biltzen da Abaroako tabernan. Gehienek arratsalderoko zaletasuna jokoan egitea da. Hasteran Udalak proposatuta, baina orain jubilatuaren euren eskariz, beste aktibitate batzuk ere antolatzen dira Elena Arregi dinamizatzailearen laguntzaz: eskulanak, sukaldaritza, ibilaldiak, erakusketak... oro har nahiko erantzun onarekin. Kontratua luzatu berri diotenez, mugimendu gehiago sortuko dela espero behar.

Astelehen arratsaldean jokoan ari dira Lucia eta Eulogio, eta kontu-kontari jardun dugu. "Buelta bat egin eta kafetxo hartzen dugu, eta jokoan egin ondoren. Hau oso ondo dago, baina herrian ere badaukagu beste holako etxe bat".



LASA-AGUILERA
aholkularitza

Laborala • Fiskala • Kontablea

Andra Mari auzunea 3, Tfnoa: 79 29 26 ARETXABALETA

- Lan-kontratuak
- Nominak
- Gizarte-asegurua
- Babes juridiko-soziala
- Elbarritasuna
- Erretiroa
- B.E.Z.
- Errenta aitortpenak
- Dirulaguntza ofizialak
- Aseguru orokorrak

CAJA LABORAL (Ψ) EUSKADIKO KUTXA



Euskeraren Geroa, Geurea

Gure hizkuntzaren geroa sendotu behar dugu. Guraso eta belaunaldi gazteen arteko zubiak eraikiz kultura indartuz, urrats berriak emanez, gure nortasuna aldarrikatuz. Euskera geurea da, Euskal Herri osoarena, bere normalkuntza eta berreskurapena guztion ardura den bezalaxe. Horretantxe dihardugu.

**Euskadiko
Kutxa**





Baloi galduaren bila

Argi ibili partidu guztiak irabazi dituen taldea

IKER



SUKALDE-ERAKUSKETA: Udala enparantza z/g, Tfnoa: 79 00 43

BAINUGELA-ERAKUSKETA: Zarugalde 52, Tfnoa: 79 99 42

**LUIS
CORRA
SALVARREY,
S. L.**



Instalazioak eta produktuak:

- Galbanizazioa
- Bibraziozko leunketa
- Pinturak
- Urak

Galdakaoko Errepidea 2, 3.
Tfnoa: 94 - 416 04 70 BILBO

JMA



A taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	Ttak.
Argi ibili	5	5	0	0	48	10	10
Bar Artano	5	3	1	1	25	16	7
Artzankos	5	3	1	1	22	17	7
Camerun's	5	3	0	2	18	20	6
Zortzikin nahiko	5	2	0	3	25	33	4
Kriskibalda	5	1	1	3	18	20	3
Potrozorri	5	1	0	4	14	27	2
Autovia patutia	5	0	1	4	14	44	1



Argi ibili. Ezkerretik-eskumara. Zutik: Jose Martin Elizaran, Federico Aranbarri, Pedro Jauregi, eta Angel Elkorobarrutia. Makurtuta: Ramon Luengo, Eleuterio Cid, Luis Mari Uribealago eta Jose Ignacio Doyague

B taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	Ttak.
Golfos Persicos	5	4	1	0	12	7	9
Arrasate Kirolak	5	3	2	0	13	8	8
Fosforo's	5	3	1	1	14	12	7
Adelaida	5	2	2	1	23	18	6
Bizkorak	5	2	1	2	17	12	5
Lorategi-Potroak	5	1	1	3	14	19	3
Sokoa 600	5	0	1	4	20	28	1
Alperrak-Aldatz	5	1	1	4	12	21	1



Zuloak. Ezkerretik-eskumara. Zutik: Juanito Barberan, Gao Sanchez, Iban Guridi, eta Javier Uribebebarria. Makurtuta: Luis Maria Ugarte, Fernando Uranga, Patxi Ugarte eta Angel Etxabe.

C taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	Ttak.
Sum. Ind. Ugarte	5	4	1	0	19	8	9
Bar Kajoi	5	4	0	1	29	17	8
Zuloak	5	3	2	1	14	9	8
New Laso Arregis	5	2	1	2	17	22	5
Los Heredia	5	2	0	3	19	23	4
Diego Antonio	5	1	2	2	17	21	4
Pepelus	5	1	0	4	22	28	2
Rayo Vatica-no	5	0	0	5	12	21	0

a.eme.interiores

GARIBAI 9
20 500 ARRASATE
(GIPUZKOA)
Tlfnoa: 943-791503
Telefax: 791489



Partidu bat hasi aurretik edozein talderen helburua ahalik eta gol gehien sartzea bada ere, antzerako garrantzia izaten du norberaren atean golik ez sartzea. Horretarako, defentsa ona egiteaz gain, atezainaren lana ere beharrezkoa izaten da.

EMAITZAK

A taldea

Argi Ibili 5	Artzankos 2
Bar Artano 4	Potrozorri 2
Autovia patutia 2	Zortzikin nahiko 9
Kriskibalda 2	Camerun's 5

B taldea

Bizkorrak 9	Sokoa 600 4
Alperrak Aldatz 4	Lorategi Potroak 6
Golfos Persicos 0	Arrasate Kirolak 0
Adelaida 2	Fosforos 3

C taldea

Zuloak 1	Sum. Ind. Ugarte 1
Bar Kajoi 4	New Laso Arregis 2
Rayo Vatika-no 1	Diego Antonio 5
Pepelus 7	Los Heredia 9

ATEZAINAK

Jesus Moreno Saria

Miguel Galan



- 7 gol: Miguel Galan (Golfos Persicos).
- 8 gol: Javier Murguzur (Sum. Ind. Ugarte) eta Jose Miguel Perez (Arrasate Kirolak).
- 9 gol: Iban Guridi (Zuloak).

OPEL 
Hobeak esperientziaz

TALLERES OLA, S.A.

Erakusketa Arrasaten:
Loramendi 2, Tfnoa: 79 05 86

 **Lorategi**
Kafetegia

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

 **GATZAGA**
Jatetxea

**EGUNEROKO
MENUA
ETA KARTA**

Olarte kantoia 3,
Tfnoa: 79 84 53
ARRASATE

**Zenbaki
saritua:
3.749**

Ebaki eta gorde txartel hau!

Trikitik eta Kajoi tabernak Walkman bat zozkatuko dute astero. Astero aterako da zenbaki bat, eta saria jasotzeko epea 6 egunekoa izango da.

Sariturik agertu ezean, hurrengo asterako gordeko da saria, eta antzeko sariren batekin trukatu ahal izango da Trikitin.

KAJOI
TABERNA

Erdiko kale 22, ARRASATE

42154



Txutak

Berdintasun handia

Asteburuan zehar eman-dako beste emaitza guztiei begira, gauza bat da aipagarriena: ihardunaldi honen ondoren, jokoan jarri diren puntu guztiak eskuratu dituen ekipo bakarra *Argi Ibili* dela, beraz alde horretatik txapelketa eskuratze-ko faborito nagusizat daitezke, sailkatzea ia seguru daukate eta. Beste bi taldeei dagokienez esatekoa da, talde bakoitzeko bi lehen sailkatuen arteko neurketak berdinketek ekarri zituztela, alde horretatik txapelketa dagoen borroka argi gelditzen delarik. B taldean *Golfos Persicos* 0 eta

Arrasate Kirolak 0, C taldean berriz *Suministros Industriales Ugarte* 1- Zuloak 1.

Espero zen bezala gauza baterako balio izan du ihardunaldi honek.

Joan den astean genion ikusiko genuela zeintzuk diren talde indartsuenak, euren artean jokatzeko zuten eta, baina garbi gelditu da ez dagoela bat bestea baino indartsuagorik eta berdintasun handia dagoela.

Zaldibarko bigarren fase honi bukaera emateko, bi partidu besterik ez dira gelditzen, 4 puntu jokoan. Hurrengo faserako pasea lortu nahi duten ekipoek ezin dute hutsik egin, atzetik doazenak oso gertu baitaude eta edozein huts aprobetxatzeko prest.

DATORREN ASTEBURUAN

A taldea

Argi Ibili	Potrozorri
Bar Artano	Artankos
Autovia patutia	Cameruns
Kriskibalda	Zortzikin nahiko

B taldea

Bizkorrak	Lorategi Potroak
Alperrak Aldatz	Sokoa 600
Golfos Persicos	Fosforos
Adelaida	Arrasate Kirolak

C taldea

Zuloak	New Laso Arregis
Bar Kajoi	Sum. IND. Ugarte
Rayo Vatika-no	Los Heredia
Pepelus	Diego Antonio

GOLEGILEAK

Mikel Otxoa Saria



Elizaran

15 gol. Jose Martin Elizaran, (Argi Ibili).

8 gol. Roberto Ortiz (Artano)

7 gol. Jesus Mari Zudaire (Bar Kajoi).

6 gol. Jon Errasti (Zortzikin nahiko), Endika Murumendaraz (Sokoa 600)

BASTIDA

- Mekanografia
- Takigrafia
- Informatika
- Kontabilitatea
- Klase partikularrak

Ferrerias 44, etxebeha, Tfnoak: 79 32 16 / 79 77 13
ARRASATE

URONDO ELEKTRIZITATEA
Nafarroako Etorbidea 11,
Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE



AURORA-POLAR

Aseguruak

Mikel Lasa agentzia

Zerkaosteta 15 etxebeha, Tfnoa: 77 00 94, Faxe: 77 10 74 ARRASATE

Federiko Krutwigen gurasoak alemaniarak baziren ere, bera euskalduna da.

1942. urtean euskaltzain izendatu zuten, hogeiren bat urte zituela. Kultura grekoa, eta etorkizuna prestatzeko iturrietara jo beharra, izango lirateke gaur eguneko Federiko Krutwigen bizi filosofiaren oinarririk sendoenak.

— Hizkuntzetarako erraztasun handia izanik, zenbat hizkuntza dakizu?

— Bederatzi edo hamar jakingo ditut gaur egun. Garai batean Ekialdeko hizkuntza gehiago menperatzen nituen, baina nolabait ahan-tzi samarrak ditut. Europako hizkuntzetan, latino eta germanikoetan hitz egiten dakit.

— Euskaltzaindian oso gazterik sartu zinen, ez?


— Hogeitabat urte nituen. Azkue, Zarate... eta horiek bizi ziren oraindik. Euskaltzaindia oso ahuldua zegoen garai hartan, Espainiako lege faxisten bidez makina bat euskaltzain hemendik kanpo zegoen, eta niri Euskaltzaindia berpiztu behar zela iruditu zitzaidan. Orduan ekin genion euskara batuaren aldeko borrokari.

— Euskara batuaren borroka aurrera eraman zenue-na izanik, zergatik hitz egiten duzu lapurteraz?

— Beno, beti euskara batuaren aldekoa izan naiz, orain ere bai, baina ez orain batua deitzen den horren aldekoa. Tradizioaren bidez sortzen den literatura hizkuntza baten alde nintzen, eta ez Estatuaren bidez sortzen denaren alde. Euskal kultura beti Lapurdin sortu da, eta beraz, sortu den bezala erabili behar dugu, bertako ortografiarekin, ez Espainian egiten den modura. Kultur hi-

Federiko Krutwig

Euskadirako etorkizun berria aldarrikatzen



tzen ortografia ez da akademia baten ekintza, baizik eta herriaren kontsentsua. Beti pentsatu dut Euskal Herria Europako mentalitatean sartzea hobe zela, eta ez Espainiakoan.

Ni ez nago dialektoen aurka, bakoitzak bere sistema duelako. Ni, orain batua izenaz ezagutzen denaren kontra nago, hori ez delako egiazko batua. Irakasleek ere ez dute batu hori hedatzearen errurik, ikasi dutena irakasten dutelako. Eta egiazko

batua ikasi ez badute, nola konturatu hark beste eukturatu bat duela?

— Euskara batuaren borrokari ezezik euskararen borrokari ere ekin zenion, garai hartan bilerak gaztelaniaz egiten zirelako, ez?

— Bai, orduan Euskaltzaindiko bileretan espainolez mintzatzen ziren. Euskaraz mintzatzen ez zekitenak zeuden Euskaltzaindian, Olabide, Urkizu... kasu, euskarari buruz asko zekitenak eta euskararen alde lan

handia egin zutenak, baina euskararik jakin gabe. Urkizu hil zenean neuk egin nuen geure bileretan euskaraz mintzatzeko proposamena eta pausoka-pausoka sartzen joan zen.

— Eta orain zergatik egiten dira gaztelaniaz?

— Hori ez da zeharo zuzena, gehienetan euskaraz egiten dira eta. Bada batzorderen bat, toponimiaren batzordea, eta uste dut hori espainolez mintzatzen dela.

— Aldaketa politiko-ekonomikoak direla eta, etorkizunari buruz mintzatzen ari zara azken aldian, etorkizunaz zer espero dezakegu?

— “Vasconia 2001” idatzi berri dudan liburuan ematen ditut beharrezko azalpenak, eta oso mardula izanik, zaila egiten da laburtzea. Etorkizuna aldatu egingo da, softwarean oinarritua, gizonen burua isladatzen den sisteman, beraz etorkizunaren egiaztatzaileak unibertsitate onak izango dira, burmuinak jakintzaz aberastuko dituen unibertsitateak. Hortik sor litezke ideia berriak, eta Euskal Herriak hortik atera beharko du herri izpiritua, folklorismo barik ikusia.

— Euskal Herriko Unibertsitateak balio dezake etorkizun hori ziurtatzeko?

— Orain dagoen bezala, ez. Alde batetik ikasle gehiegi dago, bestaldetik unibertsitateari ez dagokion zenbait gauza sartu dira, artea esaterako. Askoz gehiago ikasi eta eskatu behar da, garai batean batxiler batek zekiena daki gaur egungo doktore batek. Eskatzen den kultur maila goratu egin behar da, askoz landuagoa behar luke izan. Hortaz konturatzeko Europako beste unibertsitate batzuekin konparatzea besterik ez dago


“
Ez nago dialektoen aurka,
batuaz ezagutzen denaren aurka baino

Pello Zabaleta arrasatearra Venezuelara

Mesa Turik lurraldeko ikerketa espeleologikoa egitekotan

Lerro hauek argia ikusten dutenerako "Mesa Turik 1991" euskal espeleologi espedizioa Venezuelara iritsia izango da. Espedizio horretan doazenen artean arrasatear bat ere badago, Pello Zabaleta hain zuzen. Berak eta beste hamazazpi euskaldunek, hogeitau eguneko egonaldia egingo dute Mesa Turik izeneko mendian, bertako zulo zaharrak arakatzeko asmoz.

Mesa Turik mendiaren arakatzekak bi helburu izango lituzke, bata karst tropikalaren ikerketa, orain arte egin gabe dagoena alegia, eta bestea inguruko fauna bereziarena. Euskal espedizioak ateratzen dituen datuekin ikerketa bat publikatzeko asmoa izateaz gain, bideo profesionala editatzeko ere ba-




Pello Zabaleta jadanik Venezuelan dago

dago. Venezuelako lurralde horretako zulo zaharrek, 40 kilometro karratuko lurraldea, kasu askotan, 1.000

metroko baino sakontasun handiagoa daukate.

Pello Zabaletak, industria maisua izanik, sei urte darमतza espeleologi munduan, oraindik egindako lan guztiak Euskal Herrian egin baditu ere. Pello Zabaleta Euskal Espeleologoaren Elkargoko kidea da, espedizio honi esker kontinentetik lehen aldiz aterako den elkargoaren eta hogeitau urte baino gehiago lanean ari den elkargoaren kidea hain zuzen.

Espedizioak 12 milioiko aurrekontua dauka, kopuru horren erdia Foru Aldundiak eta Jaurlaritzak ordaintzen dutelarik. Gainontzekoa ordaintzeko toki askotara jo dute espedizio kideek, eta Arrasateko Udalak esaterako, 75.000 pezetako dirulaguntza eman dio.



Iturripeko obrak aurrera

Iturripeko kirolgunearen bukaera aurtengo San Juanetarako pentsatuta dago. Oraindik ez dago jakiterik ordurako bukatuko den edo ez, atzerapen txikia bait darama. Argazkiak argi adierazten duenez, dagoeneko kirolgunea nolakoa izango den antzematen da, atletismoa pista berezko izango duen itxura hartuta eta eraikuntza ia egin da. Proiektuak 240 milioiko aurrekontua dauka.

Kabia altzariak

Gipuzkoako Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

BRANKA
jatetxea

Eguneko menua eta karta

PODIUMA

J. L. IRAZOLA

Taxitik bizi den pilotari profesionala



Juan Luis Irazolak pilotari profesionalen artean hamar urte daramatza, betidanik bigarren mailakoen artean. Duela egun batzuk Urraren aurkako partidua jokatu zuen, eskuz-eskuzko txapelketaren barruan, eta izugarritzko jipoia eman zion. "Aurrez pentsatua nuen baino errazago irabazi nion. Batzuk esan dute Urrea ez zebilela gorputzaldi onean, baina batek ondo eta asko jokatzen duenean normala da bestea gaizki egotea".

Betidanik frontoietako aurreko koadroetan jokatu izan du Irazolak. "Gazte gaztetatik bolearako trebezia izan dut, bolea garbirako. Gero atxikiaren asuntoaz ondo aprobetxatu nuen, ederki jotzen bait nion. Orain atxikiarena debekatu egin dute, baina hala ere bolea nire armarik hobereatarikoa dela uste dut. Sakeetara boleaz sartzen hasi zirenen lehengoetarikoa izan nintzen, eta jendeari asko gustatzen zitzaion".

Atxondotarrak 29 urte dauzka, eta esan bezala, horietatik hamar profesionalen artean, profesional hitzak esan nahi duena betetzen ez bada ere. "Pilotari gehienek beste lanbide bat izan beharrik dute derrigorrez, pilo-

tak jateko ez du ematen eta. Retegi, Galartza, Tolosa, Vergarilla... eta besteren batzuk izan ezik, gainontzeko pilotariak beste lanen bat egin beharra daukate". Beste lanbide hori, Irazolaren kasuan, taxista da, pilotarako oso egokia ez dirudien lanbidea. "Egia esan, gorputzaldi onean egoteko ez da lanbiderik hobereana. Egun guztian ia eserita egotea eskatzen du, eta hortik zehar gidatzen zoazenean beti tentsioan. Gainera, entrenatzeko aukera gehiegirik ez du ematen. Dena dela, ahal dudan guztietan hemendik aterata frontoira, footing-a, edo soka saltoka egitera joaten naiz".

Orain arteko profesionaletako bigarren mailako txapelketetan Irazolak ezin izan du inoiz erdi-finaletatik aurrera egiterik lortu. Txapelketako hurrengo partidua, Irazolak bihar jokatuko du Bergaran, eta irabaziz gero, finalerako pasea lortuko du. Ea zortirik daukan!

◆ **Txirrindularien aurkezpena**

Hasieran Dorleta Txirrindulari Eskolako taldeen aurkezpena hilaren 16an egitea pentsatzen bazen ere, datorren martxoaren 23ra arte ez da burutuko. Ohi denez, aurkezpena Dorletako Amaren Santutegian egingo da, goizeko 10.30etan.

◆ **Arnaiz zilarrezko dominaz**

Junior mailako Euskadiko txapelketetan Aitor Arnaiz arrasatearrak, 200 metroko frogan zilarrezko domina lortu zuen. Horretaz gain, 60 metroko frogan brontzezko domina lortu zuen, eta gainera Arrasateko rekord berria ezarri, 7.19 segunduko denbora eginez.


Jose Antonio Gayk, lehiaketaz kanpo, 200 metroko frogan hartu zuen parte eta erraz irabazi zuen. Arrasatearra munduko txapelketan izango da, 4 x 400 erreleboko frogan parte hartzeko, oraingoz selekzionatuta bait dago, beste bost atletarekin batera.

◆ **Saskibaloiko anagrama**

Centraljet Euskal Air taldekoek badute euren anagrama berria, eta bertan agertzen den herensugearen beharra izango dute hasi berria den igoera fasean zerbait egin nahi badute.



Anagrama berria



EGVZKIGRAF


- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

Elikadura eta kirola

Elikadura eta kirola elkarrekin lotzea aspalditik egin den gauza da. Faktore ezberdinek izango dute eragin handia lotura honetan: modak, mitoak, ipuinak... eta guzti honengatik zaila izaten da askotan egia non dagoen esatea.

Izan ere, kirolaren munduan mugitzen diren diru-kopuru handiengatik, dietetika eta elikadura edo nutrizioaren garapenagatik, markak hautsi eta ekintza ikusgarriak burutzeko kirolariek duten lehiarengatik... Guzti hauengatik, janari miragarriak agertzen dira salgai, bitamina konplexuak -"hilak pizteko modukoak" propa-



gandak dioenez -"muskulua egiten omen duten" aminoazido eta proteinaz egin-dako beste produktu batzuk, etab.

Baina, zer da kirolaria? Beste edozein pertsona be-

zala bat gehiago, noski; bere eguneroko ekintzez aparte, kirola ere egiten duena. Beraz, beste edonork bezalaxe jan beharko du, hau da, modu egokian, bere dietan era askotako janariak sartuz eta oreka gordez batez ere. Guzti hau, pertsonaren behar guztiak betetzeko, eta gainera, plazerra lortuz jateko.

Horrela bada, janariak behar energetikoak eta plastikoak betetzeko misioa dute.

Kirola egiten duenak kaloria gehiago behar dituela denok dakiguna da, entrenatzen ematen duen denbora, lo-ordu, etab. ek baldintzaturik daude. Baina berdin da hiru, lau edo bost mila kaloria behar izatea; elikagaien proportzioak beti berdina

izan behar du, oreka gordez:

Proteinak:	%10-15	%14
Koipeak:	% 25-35	%30
Karbono-hidratoak	%50-65	%56

Behar diren kaloriak hartuz gero, hauekin batera hartuko ditugu bitaminak eta mineralak neurri egokian, eta ez dugu inolako osagarriaren beharrik izango.

Pisua galdu nahi dutenek edo kirola kondizio berezietan egiten dutenek, agian izan lezakete osagarri horien beharra. Baina gai hau hurrengoan aztertuko dugu.

Eukeni eta Arantxa

Errikita ren **ESKAINTZA BEREZIA**

SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora 25, Tfnoa: 77 13 20 Faxa: 79 88 56 ARRASATE


	LEHEN	ORAIN
PHILIPS M. 6270 25" TELEBISTA	117.500 pta.	99.500 pta. + PUBLIZITATEA
NAKAMICHI A2, CD-3, C2, JBL LX - 22 kajak MUSIKA EKIPOA	272.070 pta.	227.070 pta. + PUBLIZITATEA
ONKYO TX-822, TAR-W400, DX 1.400, KEF C-55 kajak, MUSIKA EKIPOA	196.415 pta.	167.075 pta. + PUBLIZITATEA
ALPINE 7288 MM, 5952 S, AUTORAKO IRRATI CASSETTE, CD,	188.335 pta.	130.000 pta. + PUBLIZITATEA

Batuta

Juanito Artzamendi

Juanito Artzamendik 63 urte dauzka, ia gehienak, neurri handi batean behintzat, musikari eskaini dizkiolarik. "Hamabi edo hamahiru urte izango nituen musika bandan sartu nintzenean. Pare bat urte inguru egin nituen, eta gero Justo Munarriekin, bandako zuzendaria zenarekin, pianoa ikasten hasi nintzen. Valladolidera joan nintzen piano ikasketetan sakontzera, eta Bilbon bukatu nituen. Ondoren konposizioa, armonia... Francisco Escuderoekin ikasi nituen. Konposizioan sakontzeko asmoa nuen, baina Munarri gaitu zenean, 1960an banda zuzentzen hasi beharra egokitu zitzaidan. 1963an Madrilen zuzendari profesionala izateko oposizioak gainditu nituen, 188 lagun aurkeztu ginen eta nik zortzigarrena izatea lortu nuen".

Oposizioak hain erraz gainditzeak, seguruen Juanito Artzamendiri ate asko irekiko zizkion musika munduan baina berak Arrasatera itzultzea nahiago izan zuen, herrian bertan lana egiteko asmoz. Hilabete erdi Madrilan egon ondoren, zuzendari titulua poltsikoan zekarrela,



herrira iritsi bezain pronto banda zuzentzeari ekin zion berriro, 1974ean desagertu zen arte. "Nire bizitzako penarik handienetakoa izan zen bandaren desagertzea. Desagertu ez zedin ahalegin ugari egin nituen, baina ez zen posible izan. Egia esan, jendeak bandari ez zion jaramon handirik egiten, gu plazan musika jotzen eta jendea dantzara diskoteketara joaten zen".

Ordurako martxan jarrita zeukan Arrasate Musikal, "Musikarako zaletasuna zutenei aukera emateko sortu nuen Arrasate Musikal. Orkestra irten zenean jendeak sinetsi ere ez zuen egiten. Denborak erakutsi du Arrasate Musikalek baduela etorkizunik eta kontserbategi bihurtu beharko litzatekeela uste dut. Niretzat pozik handiena jubilatuaurretik berriro banda martxan ikustea izango litzateke".

Banda desagertzea niretzat oso penagarria izan zen

Txio txioak

Txelo Talde Iberiarra Euskal Herrira

Bere etxea Gironan, Katalunian, duen Txelo Talde Iberiarrak badu zerikusirik Arrasaterekin. Izan ere, dituen zortzi partaideetatik bat mondragoetarra da, 17 urteko Patricia Esparza txelajolea.


Martxoa eta apirilean hainbat musikalaldi eskainiko dituzte Euskadin. Gernikan, Getxon, Durangon, Leioan eta akaso Gasteizen ere Elias Arizkuren txelajole eta irakasle euskaldunak zuzentzen duen talde honi entzuteko aukera izango dute.

Patricia Esparzak Arrasate Musikalaren eman zituen lehen urratsak musika munduan, Bartzelonan eta Amsterdamen ere egon delarik ikasten. Haren ahizpa Virginia hain zuzen Holandan dago bibolin ikasketak sakontzen. Aurtan Patricia UBI ari da ikasten Mondragoeko Institutuan. Hilean birritan Gironara joaten da Arizkuren eta Bassal irakasleekin ikastera.



Patricia Esparza

"EDERTU" ileapaindegia



San Andres auzoa 79 04 28

FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea 1, Etxabea. Tfnoa: 77 14 24

Alfabetizazioa dela eta... (VII)

Arrasateko Emakumeen Asanblada

Historiaz zenbait zertzelada 1976.eko bukaeran Arrasateko emakumetalde bat biltzen hasi ginen eta 1977.eko otsailean erakunde bihurtu: urte horretako martxoaren 8an, Nazioarteko Emakumearen Egunean, hain zuzen, antolatu genituen lehendabiziko ekintzak.

Pentsaera guztietako emakumeak biltzen ginen, guztiak, halere, emakume izateagatik gizartean aurkitzen genituen trabak aztertzeko gogo handiaz.

Garai hartan bai Euskadin eta bai Estatu espainolean ere mugimendu feministak sortu ziren. Emakumeok orduan hasi ginen gizarteak guri eta



gizonezkoei eskainitako rolen arteko desberdintasunen zergatiak aztertzen.

Elkartearen antolaketa

Gure elkarte emakumez osatua dago, eta emakumez

bakarrrik, zapalketa-mota berezi batek elkarrekin lotzen gaituelako.

Hala ere, emakumeok jasaten dugun zapalkuntzari amaiera emateko, gaur egungo gizarte hankaz gora jarri

beharko genukeela uste dugu.

Gure elkarte honek asanbladaren bidez funtzionatzen du.

Asanbladaren ekintzak

Asanblada honek bizirik dirauen urteotan hainbat gai kaleratu ditu; hona hemen batzuk: sexu-heziketa eta informazio zentru baten beharra, emakume bakoitzarentzat lanpostu baten beharra, hezkuntza ez-sexista eta koedukazioaren alde, bortxaketa eta eraso sexisten kontra, abortatzeko eskubi-dea...

(Jarraituko du)

Arrasateko Emakumeen Asanblada

Klarion Taldea

EUSKAL

DANTZA JAIALDIA



Gasteizko Adurtza eta Arrasateko Lore Gazteak

- Martxoak 9, larunbata
- Amaia Antzokian
- Gaueko 10.30etan



Enrike Alonso

Txirrindulari profesionala



Baldintzak onak izanez gero bizkor gidatzea gustatzen omen zaio Enrike Alonsori, eta bidea ezaguna izanez gero, gauez gainera. "Multaren bat jarri didate azkarregi gidatzeagatik" -dio Enrikek- eta besteren bat jartzea ez litzateke arraroa izango, gerrikorik ez bait du erabiltzen. Autoa inori uzteko problemarik ez daukala dio, baina berak gidatzea nahiago, autoestopistarik ez hartzea nahiago duen bezala, "ez du jakiten zer kontatu eta".

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta 17, etxabehea. Tfnoa: 79 20 18 ARRASATE

San Jose eta Aste Santutan eskiatzera

Azken bolada honetan eta batez ere, negualdian, bizikleta eta elurra batera samar agertu zaizkigu gai honi buruzko aldizkari espezialitatuetan. Badirudi modan jarri dela biak elkarrekin bat datozelako edo.

Gaurko horretan bizikletaren mundu eder hori albora utzi eta aurki San Joseko jai-zubia eta Aste Santutako eta Bazko Asteko jaieguna datozela eta, Besaideko ski sailak antolatutako berri emango dizuet.

Lehenengo San Joseko jai-zubi horretan, asteburuan behintzat, Besaidek astebururo antolatu legez, For-

migalgor irteera; "Nieve Sol" hotelean, pentsio erdian; zapatuan goizaldeko Setan urten eta itzulera domekan gaueko 9etarako.

Aste Santutan bi aukera izango duzue:


- Batetik, Bazko Astean, Alpeetara joan gura duenak Alpes Tignes-Vall D'Iseren irteera martxoaren 29an izango da eta itzulera apirilaren 6an. Alojamentua 4 eta 5 pertsonako apartamentuetan. Erremontek 6 egunetarako bi eski-estazioetan.

Bidaia autobusez egingo da. Prezioa: bazkide denak 37.000 pezeta eta gainontze-koek 38.000 pezeta. 13 urte-rik beherakoek 35.000 peze-
ta eta bazkide ez denak

36.000 pezeta.

Eskiatu gura ez duenak 10.000 pezeta gutxiago ordainduko du.

- Frantziako Pirinioa bestetik: Besaiden adierazi didatenez, Gourettera izango da eta urten martxoaren



28an eta itzulera apirilaren 1ean. Guztira 5 egun eskiatzeko eta prezioa 19.000 pezeta, bazkideentzat. Bazkaria norbere kontura.

Ikusten duzue zer nolako aukera eskaini diguten aurtengoan. Ziur lagun asko, oraindik ere, zalantzan dagoela; guzti horiei, animatzeko baino ez nieke esango.

Alpino egiten duen orok badu aukerarik non aritzeko. Fondo edo Ipar eskia praktikatzen duenak, ostera, bere kabuz edo bestela deitu Durangoko Tabira Elkartera: telefonoa- (94) 68 13 432.

Besaideko telefonoa: 79 84 74- 6.30etatik 7.30etara.

K. U.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

- * Diagnostikoa - Orientazioa
- * Estimulazio goiztiarra
- * Erreabilitazio funtzionala (Psikomotritzitatea eta hizkun berreziera)
- * Logopedia
- * Laguntza terapia
- * Mota guztietako eskola arazoak, enuresia

(Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea 10

ARRASATE TFNOA: 79 48 77

MUSAKOLA OSTATUA

**Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak**

Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50



KAT@IDE
J A T E T X E A

- Enpresa batzarrak
- Eskontzak
- Afari xarmantak
- Lehen jaunartzeak
- Lagunarte afariak

**Bi jangela eder eta
erreserbatua zure gustorako**

Erreserbak Tel.: (943) 79 60 10

Kataide Poligonoa. Arrasate

Mondragonesa Grafikagintza

Paperdenda. Mahaigaineko tresnak

Olarte 10, Tfnoa: 79 12 63

TAPIA eta LETURIA RIP MINXORIAK

eta beraiekin kantuan:

- **Gari** (Hertzainak)
- **Roberto Moso** (Zarama)
- **Andoni** (Delirium Tremens)
- **Elortxa** (Jotakie)
- **Anje Duhalde**
- **Josu Garaita** (Danba)
- **Gorka** (Julio Kageta)
- **Patxi** (SS-77)
- **Katu** (Baldin Bada)

Eta sorpresak...

**Arrasate Presseak
100 ale
ASTETIK ASTERA
HUTSETIK EHUNERA**

Arrasateko Kiroldegian

Martxoak 22, ostirala, gaueko 10etan

Sarrerak: Aurrez 600 pta. leihatilan 800 pta. Salgai ohizko lekuetan.

IKATZ
ARGAZKI
ETXEA

Zure argazkiak

ORDU 1ean

ARRASATEKO
UDALEKO
GAZTE-ZERBITZUA

KAJOI
taberna

Erdiko kale 22,
Tfnoa: 79 32 27 ARRASATE

Aste gazte

"Gaztezaletasunaren modaren garaia amaitu eta heldutasuna, oreka eta aukeraren garaiari hasiera eman zaio".

"Italia hoy"



Paris- AC-DC

• Berri txarrak AC-DC taldearen kontzertura joan nahi genuenontzat: azkenengo momentuan sarrerarik gabe utzi gaituzte (hasieran erreserbatuak geneuzkela behin eta berriro ziurtatu ondoren). Hau faena!!! Esan digutenez, takilan salgai egongo dira, baina ea nor ausartzen den saiatzera.

Dena den, Pariserako bidaia hor dago. Izena eman ondoren joan nahi ez duzueinei, dirua astelehenetik aurrera bueltatuko zaizue.

Hala ere, joan nahi duzenok aurkituko duzuen Parisenez aspertzeko modua.

Eta, noski, plaza batzuk geldituko dira Paris ezagutu nahi dutenentzat. Baldintza guztiak berdinak dira: martxoak 27-Apirilak 1, bus-literan, etab. prezioa noski, aldatzen delarik: 13.000 pta. lanean ari direnentzat eta 11.000 pta. ikasle eta langabetuentzat.

Lehiaketak

• Ignacio Aldecoa XX Ipuin Lehiaketa. Gai librea, euskaraz nahiz gaztelaraz. Sariak: 400.000 pta. modalitate bakoitzeko. Lanak aurkezteko epea: martxoak 25.

• "Mendiko Lagunak" 1991, Mendiko Argazki XI Aretoa. Gaia: mendia edozein ikuspuntutatik: kirola, landareak, animaliak... zuri beltzez nahiz kolorez, teknika librea. Sariak: 40.000, 20.000, 15.000, 10.000 eta garaikurrak. Lanak aurkezteko epea: apirilak 25.

• XXIII Nazioarteko Abesbatz Lehiaketa. Tolosa.

Lehiaketa urriaren 31tik Azaroaren 3ra bitartean burutuko da. Kategoria eta modalitate ezberdinak. Izena emateko epea: maiatzak 15.

Herriko gazte-taldeak

• Gogorazten dizuegu 1991 urtean dirulaguntza jaso ahal izateko iazko memoria, aurtengo egitasmoa eta gastu eta diru-sarreraren balantzea aurkeztu behar dituzuela. Epea: martxoaren 15era arte zabalik dago.

Bekak, dirulaguntzak

• Europar Elkarteko hizkuntzen ezagupenak zabalteko dirulaguntzak. Baldintzak: aukeratutako hizkuntzan nahiko prestakuntza izatea (hitz egiten eta idazten jakin), 18 eta 25 urte bitarteko adina izatea.

• Gazteen taldeentzako dirulaguntzak kultur bidaiak egiteko, gizarte eta kultura

desberdinak hurbiletik ezagutzeko. Jasotzaileak: a) BBB, LH, IEE eta UBIko ikastetxeak, b) gazteen elkarteak.

Lanpostu-deialdiak

• Getxoko Udalak honako lanpostu hauek (funtzionarioak) betetzeko deialdia egin du:

Informazio-Zientzietan lizentziatu bi, drogomenpekotasunean goi mailako teknikari bat, gizarte-laguntzaile bat, ikus-entzunezko gaietan espezialista bat, administrari bat, administrari-laguntzaile bi, bi txofer, arotz bat, igeltsari bat, margolari bat, elekttrizista bat eta zortzi langile.

Izena emateko azken

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65

"PAL"
burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99



Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreproduzioa
Offseta
Ferrerías 23,
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62


Altzariak
Diseinua
Apainketa
M
ARENAZA

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI BADUZU
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....
HELBIDEA.....
HERRIA.....

Azoka kalea 1, ARRASATE Tfnoa: 77 08 15



77 08 15

ETXEBIZITZAK

- Donostian etxebizitza konpartitzeko txorokir baldin baduzu deitu 79 24 52 tfnora. Joseba.
- 45m²ko lokala saltzen da oso merke. Edozein motatako negozioa jartzeko. Interesatuak dei egin 94 - 682 04 83 tfnora. Astearte-larunbata bitartean, 9etatik 1era.
- Logela alokatzen da bi oherekin. Tfnoa: 79 07 73.
- Etxebizitza salgai Zarugalde kalean. Garajea eta ganbara. Guztiz berria. Tfnoak: 77 09 33 eta 79 04 69.
- Erreterria aldean lan egin behar dut; etxebizitzaren batean logela librerik ezagutuz gero, deitu 79 24 66 tfnora. Kepa.
- Arrasaten erdialdean etxebizitza salgai. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela eta ganbara. Garajea aukeran. Tfno. 79 95 46, gaueko 8etatik 10ak arte.
- Etxebizitza salgai Zaldibarren, berritua eta prezio onean. 78m². Deitu konpromezurik gabe 77 12 22 tfnora., gaueko 9etatik aurrera.
- Arrasaten neska edo mutila behar da etxebizitza konpartitzeko. Deitu astelehenetik ostiralera gaueko 8.30etatik aurrera. Tfnoa: 77 08 90.
- Neska behar da etxebizitza konpartitzeko Arrasaten. Tfnoa: 59 39 79.
- Aretxabaletan edo Arrasaten etxebizitza alokatuko nuke. Tfnoa: 79 01 00 Jose Luis.

LANA

- OHoko klase partikularrak ematen dira euskaraz zein erdaraz. Tfnoa.: 79 26 19. Itziar.
- Emakumea umeak zaintzeko prest. Tfnoa.: 79 97 58.

- Emakumea afariak edo bazkariak zerbitzeko prest. Deitu 79 78 65 tfnora.
- Fisika klaseak ematen dira. Goizean eta arratsaldean. Tfnoa: 77 13 95.
- Erretegi batean astebukaeretan lana egiteko bi emakume behar dira. Tfnoa: 76 22 68.
- Idazmakinez eta ordenadorez pasatzen dira lanak. Tfnoa: 79 62 89.
- Andrak etxeko lanak egingo lituzke, orduka. Tfnoa: 79 15 56.
- Emakumea behar da Gasteizen etxeko lanak eta umea zaintzeko. Tfnoa: (945) 23 29 74 (gauez).
- Kimika klaseak hartuko nituzke (1. Injinerutza) Tfnoa: 80 12 54.
- Hiru gaztek buzoneoa egiten dute Oñatin 3 ordu t'erditan. Tfnoa: 78 07 72.
- Etxez-etxe drogeria produktuak -bizarra kentzeko labanatzokak eta makinilak- saltzeko jende bila gabiltza. Argibide gehiago 76 60 00 tfnora.
- Neska euskalduna behar da Gasteizen etxeko lanak egin eta hiru urteko umea zaintzeko. Deitu 20.00etatik aurrera 945 - 23 01 05 tfnora.

SALEROSKETAK

- Orbea Mustang mendiko bizikleta, kalapiesak, argia, lanta eta pinioi berriak. Egoera oso onean 40.000 pta. Gutxi erabilia. Tfnoa: 79 54 65 egunero gauez. Garikoitzez galdetu, 9.00etatik 11.00etara.
- Karro denda berria salgai. Tfnoa: 799055 (94) 681 75 06.
- Sukaldeko mahaia eta aulkia erosiko nituzke. Tfnoa: 79 59 72.
- Opel Kadet-erako portaeskia salgai. Tfnoa: 79 45 39. Josefe.

- HI-FI ekuilizadorre ezin hobea salgai. Digitala eta analizadorearekin, mikrofonoa ere badauka. Prezio onean. Interesatuak dei 79 47 90 tfnora. Javi.
- Larruzko butaka beltzak saltzen ditut. Estreinatuz gabe eta oso prezio onean. Tfnoa: 79 52 80
- Moulinex mikrouhina salgai, oso berria eta oso merkea. Tfnoa: 79 06 63
- Yamaha 250 Special-a salgai. Tfnoa: 88 28 63 Aste bukaeretan.
- Furgoneta isotermikoa salgai eta berarekin lan iraunkorra izateko aukera. Deitu 9.00etatik 12.00 etara 94 - 17 24 16 Tfnoa..
- 50ko anplifikadorea ona eta merkea saltzen da. Probatu nahi baduzu deitu 79 03 69 tfnora.
- Polk-audio markako HI-FI: bi bafle salgai, goi mailakoak (SDA CRS+). Interesatuak dei 79 47 90 tfnora. Jabi.
- Seat Ibiza CLX ia berria saltzen dut. Lau urtekoa. SS-AB. Interesatuak dei egin gauez 79 24 01. Zele.

DENETARIK

- Gazte batek buzoneaketa lanak egingo lituzke Interesatuak dei egin 79 80 55 telefonora eguerdiko 2.30etatik 5etara eta gaueko 7.30etatik aurrera.
- Udaberria datorrela eta, esnatu da Jo ta fuego. Amona goixorik egon arren badu oraindik indarrak; beraz, hemendik aurrera Jo ta fuego. Aste santuetan bileratxo bat egitekotan gabiltz, joan prestatzen, ordurako amona dendatukoda eta.
- Hozkailua eta/edo ikuzkailua aldatzekotan bazaude ez bota. Deitu 79 52 27 tfnora. gaueko 9etatik aurrera. Eskertuko dizut.



ARRASATEN HILDAKOAK



Murura Arregi Doro
otsailaren 26an. 72 urte.
Etxabe Maskariano Eulogio
otsailaren 28an. 76 urte.
Aranbarri Goñi Ramon
otsailaren 28an. 76 urte.
Zubia Eguren Angel,
martxoaren 3an, 64 urte.
Madinabeitia Lamarain Hilario
martxoaren 3an, 81 urte.
Zabala Abasolo Miguel
martxoaren 4an. 65 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Kristina Arriaran Beinke dendakoa



- **Salda ala kafea?** Goizean salda eta arratsaldean kafea.
- **Zuritoak ala txikitoak?** Txikitoak beti.
- **Antzerkia ala zinea?** Ez bata eta ez bestea.
- **Liburua ala aldizkaria?** Aldizkaria nahiago dut.
- **Telebista ala irratia?** Telebistak engantxatu egiten nau, eta irratia berriz egun guztian entzuten dut, lanean nagoela.
- **Lore freskoak ala artifizialak?** Freskoak, noski.
- **Bidaiatzeko, trena ala autobusa?** Beno, normalean autoz joaten naiz, baina gehien atsegin dudana abioia da.
- **Hika ala zuka?** Hika beti.
- **Aste Santuak ala Gabonak?** Gabonek lan gehiago esan nahi dute, beraz Aste Santuak nahiago ditut.
- **Kanping-a ala hotela?** Orain hotela nahiago dut, baina garai batean harremanak egiteko eta horrela, gustora joaten nintzen kanping-ean.
- **Entzutea ala hitz egitea?** Gauza ona bada, entzutea.
- **Arrasate ala Mondragoe?** Mondragoe.
- **Ile naturala ala permanentea?** Urte piloa daramat permanenteaz.
- **Motorrak ala autoak?** Autoa erabiltzen dut, baina motorrean ibiltzea izugarri gustatzen zait.
- **Denda txikia ala supermerkatua?** Denda txikia, jendearekin dauden harremanak eta, politagoak dira.
- **Baba gorriak ala baba zuriak?** Gorriak, izugarri gustatzen zaizkit.
- **Hitzaldiak ala mahainguruak?** Mahainguruak, saltsa handiagoa dute.
- **Udalaitz ala Besaide?** Egia esan, inoiz ez naiz Besaidera iritsi, eta Udalaitzera bai. Hortaz, Udalaitz nahiago.
- **Perretxikuak ala txanpinoiak?** Perretxikuak, susak batez ere.

Artxibotik

Santa Ageda

Igaro berri dira Gesalibar auzoko Santa Ageda festak. Bezperan kantatzera egiten den urtenaldiagatik ez balitz, Arrasate eta inguruetako jendeak ez zukeen seguru asko jai horien berririk izango. Izan ere, "Santagedak" ez bait dira jadanik garai batekoak.

Badakit, jakin, hau ez dela auzo baten eskusiba, auzo gehienetako jaiak gainberrera bait doaz aspaldi honetan. Baina bakoitzak berea maite du gehien, eta nik ere neureari ekingo diot oraingoa.

Aurtengo eta azken urteetako jaietan, Gesalibartik kanpoko jendea urri izan da; beste arrazoiren artean, kanpokoak erakartzeko programa egokirik izan ez delako. Eta hori honela izanik, ni behintzat nostalgiko jartzen naiz. Txikitako gogorapenak datozkit burura eta, irudimen apur batekin, inguruko zaharrenek kontatzen dutena irudikatzen hasten naiz, gure belaunaldikook ezagutu ez dugun santagedatoko festa-giro hura, hain zuzen. Eta urrinago bagoaz, aurreko mendeetara, edonon aurki dezakegu jai horien ohiartzun zabalari buruzko aipamenik. Egia da, halere, garai desberdinak zirela, Gesalibarko aintzinako jaien arrakastak erlijioarekin zuela lotura, Santa Agedarekiko debozioa zela eta. Irakurri bestela XVI. mendean (420 urte dela, hain juxtu) Garibai arrasatearrak dioskuna:

"(...) descendiendo por los valles de Guesalibar, donde esta la devota iglesia parrochial de Santa Ageda, bien frequentada y visitada de las gentes de Guipuzcoa, Vizcaya y Alava, y otras partes, que en sus trabajos y necesidades ocurren a pedir favor y ayuda a la virgen y martyr santissima..."

*Txipi Ormaetxea
(Jarraituko du)*

**Felipe
Arrizabalaga**
aroztegia



Legarre pabiloia Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea 2,
Tfnoa 79 29 94
ARRASATE



Aita Baleriano Elkorobarrutia

Uribarri auzokoa genuen aita Baleriano Elokorobarrutia Mendiazpi, baserrikoa. Zortzi anai-arrebatako bat.

Plazido anaiaren bideari jarraituz, hamahiru urterekin Murtziara joan zen fraile egiteko asmotan. 1926an Guadixen, Granadan, lehen meza esan zuen. Urte batzuetan irakasle izan zen Alikanten eta Medikuntza ikastaro batzuk egin zituen.

1931n, Ertamerikara bidali zuten. El Salvador, Guatemala, Nikaragua eta Costa Rican egon zen irakasten eta lanean. Bere lanik handiena S. Jose de Barberenako parrokian egin zuen, hamalau urtez egon bait zen han, 1971n hanketako gaisotasuna zela medio, Guatemala hiriko La Recolección komentura eraman zuten arte. Hogei urte eman zituen fraile mondra-goetarrak gaisorik komentu horretan, aurtengo urtarrilaren 4ean hil zen arte.

Haren lankideen esanetan, aita Biktoriano gizon argia zen, trebea eta asko irakurritakoa. Hala ere, ez zuen ezer idatzi, antza denez begietan zuen gaisotasunagatik. Aita Markos Azurmendi fraile karmeldar bizkaitarrak dioenez, gai asko dominatzen zituen: medikuntza eta astronomia esate baterako, eta horrez gainera, erdi barazkijalea omen. «*Aspaldion oso gaisorik egoan, baina hala da guztiz be, beti buru argiagaz kontuek esateko eta zeozer euskeraz abesteko be bai*».

Guatemalako artzapezpikuak eman zituen aita Baleriano zenaren aldeko hiletak. Haren gorpua Guatemala hiriko kanposantuan datza, frantziskotarren panteoian.



HI-FI CARS SYSTEMS

**AUTORAKO
ELEKTRIZITATEA**

- Autorako soinua
- Alarmak
- Ekipamendua


Legarre Pabilioia, etxebehea,
Tfnoa: 77 02 36 ARRASATE

**MARTINEZ
aroztegia
Sukaldetan
neurri guztietako
altzarak**



Araba Etorbidea, 13
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

ALMEN IKASTOLA

Ezetz asmatu gure hamar izen hauek?



Ea ateratzen dituzun gu bion artean dauden 10 desberdintasun



Gure mezu hau atxeratzeko garrantzi handi behar duzu. Hitz baten bukatzea adierazten du.

Almen dituzu gitariko batzuen argazkiak. Berziak dirak, eh?



Eskeintzen 1991ko otsaila

Maizteko laguntza: Hagaritzan eskutitza lantzen hari behar duzu eta elkar trukatuzko laguntza bilatzen aru gona. Hagaritzan bat prentz balago honetarako ondoan du gure helbidea.

ANIMA ZALTEZTEI ZORRI ZORRI ER-AMTZUBARRAS ZAI GAUDE! bister arte!!!

3. mailako ikasleak 3

ALMEN IKASTOLA
3. Maila
Zombako 1/3
20.540 ESKORIALZA

BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak
Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu
Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE

Monte taberna

Maalako errabala 11, Tfnoa: 79 20 56

HERITZA BILIM

Zapore garratx dela garratx herioa ez da garratx ez da zapore.

Bero beroa dela bero herioa ez da bero ez da hotzik.

Herioa, ezetz hori, ez dakigu ezin da irudi.

Ispilu bat kraskatua hauts azpitan amarauna.

Dela zulo dela gorri hitz guztiak dira bazter.

Dira oker gara bilim heriotza bilim hori.

Baina azken batez EZTA BILIMIK ERE jatorduan.

Jon Aiaستui Guridi



**ASEGURU
ARTEKARIA**
Zure esanetara gauzkazu!

Maalako Errabala 33, Etxabea. Tfnoa: 79 69 00. Fax: 79 69 43 ARRASATE

11 ASTELEHENA

- 18.30 **Teletestua.** Era guztietako iragarki eta abisuak.
- 19.30 **Bapirulauke,** umeen saioa, aste honetan Asunción ikastetxean grabatua.
- 20.00 **Berriak,** asteburuan Arrasaten gertatutako guztiaren berri, Begoña Garairen eskutik.
- 20.20 **Mondrasport,** ATBren kirol-saioa, Beñardo Kortabarriak zuzenduta.




- 20.35 **Saltsa Maltsan,** Jaione Olabek *itsasapoa intxaur saltsan* prestatuko du.
- 20.45 **Erreportaia:** Helduen Heziketa Iraunkorreko ikasleek egindako lana.
- 21.30 **Berriak** (errepikaldia)

12 ASTEARTEA

- 11.00 **Teletestua.**
- 12.00 **Bapirulauke** (bezperakoa)
- 12.30 **Berriak** (bezperakoa)
- 12.50 **Mondrasport** (bezperakoa)
- 13.05 **Saltsa-Maltsan** (bezperakoa)
- 13.15 **Bapirulauke** (errepikaldia)
- 13.45 **Erreportaia** (bezperakoa)
- 14.00 **Berriak**

13 ASTEAZKENA

- 19.00 **Teletestua.**
- 20.00 **Berriak,** Arrasateko albistegia, Begoña Garaik aurkeztua.
- 20.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** mahaingurua. Gaia: Osasungintza Arrasaten.



21.10 **Berriak** (errepikaldia)

14 OSTEGUNA

- 11.00 **Teletestua.**
- 12.00 **Berriak** (bezperakoa)
- 12.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** (bezperakoa)
- 13.10 **Berriak** (errepikaldia)



15 OSTIRALA

- 19.00 **Teletestua**
- 20.00 **Berriak,** ATBren informatiboa, Begoña Garaik aurkeztua.
- 20.20 **Erretratoa,** J. R. Elortzak zuzentzen duen elkarrizketa. Gonbidatua: Pedro Sologaitza "Laso" argazkilari famatua bere garaian.



- 20.50 **Musikantoi,** Patxi, Pepe, Asier eta Mikelek egiten duten saioa. **Berriak** (errepikaldia)

16 LARUNBATA

- 11.00 **Teletestua**
- 12.00 **Berriak**(bezperakoa)
- 12.20 **Erretratoa**(bezperakoa)
- 12.50 **Musikantoi**(bezperakoa).



Berriak (bezperakoa)

ESTETIKA ZENTRUA

lurrundegia, opariak, jostailuak

Z a r r a o a

Kanpantorpea 4, Tfnoa: 79 12 19

M MIKEL

Eskaiola, pintura eta kortxozko apainketa

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75
ARRASATE

Telebegi

Duelagutxi, haurren telebistaren eragina aztertzeko baten ondorioak argitaratu zituen egunkari batek. Ondorio hauek ezer berririk ez zuten argitzen, baina bazegoen guztien artean datu kezka-garri bat. Badirudi psikologo eta pedagogoen ustez, haur batek telebista aurrean batezbeste egunean pasatzen dituen 5 orduetan zehar jasotzen dituen mezu eta ideia subliminalek uste baino maila handiagoan baldintzatzen dutela haur horren izaera eta jokaera. Hau ona edo txarra den norberak neurtu beharko du bere pentsakera edo baloreen arabera eta norberaren balore eta pentsakera telebistatik transmititzen direnekin bat datorren edo ez.

Herri telebistek badute honen aurrean zer esanik. Telebista nolabait sozializatu, eta azpi interesik gabeko medioa bilakatu. Baina hori bai, horretarako telebistak perretxikoak bezala sortu beharko liriateke herri eta auzoetan. Ea ba!

Andoni Urzelai



Joan den asteko *Bapirulauke* saioa ikusi zutenek Apotzagako kanposantuari buruz *Iku-Mika* taldeak egindako lantxoak dastatu ahal izan zuten. Lan hori egiteko Iku-Mikakoek gidari eta aholkulari aparta izan zuten: **On Kruz Abarrategi**, Apotzagako abadea. Hari esker informazio ugari jaso eta askatasun osoz ibili ziren grabatu bitartean. Talde osoaren izenean, mila esker.



Astelehen honetan ATBk eskainiko duen erreportaia **Helduen Hezkuntza Iraunkorreko** (EPA) hamabost ikaslek egina da. Euskara lantzeko beste modu honetan, 45 minutuko programa burutu behar zuten. Berriak, kirolak, musika, inkesta... eta eurek asmatutako publizitatea. Dena umore onean. Argazkian Patxi Monteroren zuzendaritzapean lana egin duten hamar artista.

Telebelarri

◆ Tripakixaik badaukan? Ba haxe noien gaur tripakixek afaltzera', behin baino gehixao esan ostan don Jose Luis lehengo parrokuak».

Eugeni Aiastuik Erretratoa saioan.

◆ Asko ikasi neban Obduliaz, bixok alkarri lagunduz».

Eugeni Aiastuik Erretratoa saioan

◆ Orduen umiek asko gintzen eta belaxe biatzen ziran hortik zihar, tripia betete alde be bai, oingo moruen ez».

Eugeni Aiastuik Erretratoa saioan



ARIES

*Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra*

Sentibera egongo zara, Aries, eta baliteke eguneroko egin beharre aurre egiteko makal samar egotea. Eguzkia har ezazu ea energia horiek piska bat sendotu eta burua argitzen zaizun. Aisedena behar beharrezkoa da norbera sendotzeko.



LEO

*Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra*

Urrutirako bidaiaren bat egin behar izatea suerta liteke Leo, zaude pronto beraz. Horrela gertatzen ez bada ere nahikoa biadaiatuko duzu irudimenarekin baino izango ez bada ere. Ez zaitetz geldi egon, ibiltzeko premia izango duzu eta.



SAGITARIUS

*Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era*

Hain tente joateak askotan azpian dagoen zeozerekin estropozu egitera bultzatzen gaitu. Lurrera begira ezazu oinez zoazenean, bihurrituren bat egitea suerta liteke eta.



TAURUS

*Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra*

Gurpil zoro horretatik atera ezinda zabilta, Taurus. Maitasun arloan dituzun baloreak finkatzea komeni zaizu, harreman tinko bat lortu nahian zabilta. Geldotuta zaude eta freskaturen bat hartu beharko zenuke odola bizkortzeko.



VIRGO

*Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra*

Maite duzun-norbaitekin tirabira serioaren bat suerta liteke hirugarren baten erruz. Adi egon zaitetz ingurukoena jokaarekin ziria sartu aurretik. Ariketa fisikoa egizu, buruan dituzun arazoei hainbeste buelta ez emateko.



CAPRICORN

*Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra*


Lasaitasuna nabaritutako duzu batez ere Capricorn, ohi ez bezala jokatzeko ari zarela, bai zeure buruarekin bai besteekin. Errazago onartuko dituzu besteen eritziak zeuk ere beraien modura jokatu duzulako.



GEMINI

*Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra*

Zeure eritziak baino ez dituz aintzat hartuko, onenak direlakoan, Gemini. Kontuan izan bi begi bakarrek baino hobeto ikusten dutela eta hala egin beharrik errazago gauzatzen direla. Hala jakatuz gero, ez zara horren bakarti sentituko.



LIBRA

*Irailaren 24etik
Urriaren 23ra*

Iletargian emango dituz egunak Libra. Burura datorkizun ideia oro adierazten saia zaitetz ortzian galduta ez bizi izateko eta hankak lurrean eusteko.



AQUARIUS

*Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra*

Epailereana egiten ari izango zara mundu guztiarekin eta ez zaizu ez, arrazoirik faltako, arazo guztiak objektiboki ikusteko gaitasuna izango duzulako. Pentsatu berri duzun helburu horren gauzatzea lasai hartu beharko zenuke.



CANCER

*Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra*


Eskuzabal eta bihotz zabal egongo zara Cancer. Edonori lagutzeko prest azalduko zara, bainajarrera hori kanpokoekin azalduko duzu batez ere eta etxeoak zertxobait ahaztuko. Bion arteko oreka lortzea primerakoa izango litzateke guztiontzat.



SCORPIO

*Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra*

Intuizioa puri-puritan izango duzu eta edozeinen asmoak berehala antzemateko gaitasuna izango. Aitzitik, asmo txarrak desbideratzeko behar den abilezia faltako zaizu eta hobe horrelakoetan ezikusiarrena egitea; arazo ugari ebitatuko duzu.



PISCIS

*Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra*

Baliteke norbaitek zure irudimenaren ondorioz sortutako ideien bat aprobetxatu nahi izatea, baina, ez da berearekin aterako, izan ere ilargiak horretarako behar izango duzun intuizioa emango bait dizu eta



HIRU S. A. MEKANIZAZIOAK


- *Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera*
- *Fresatzeko makinak*
- *Zenbakizko kontrola*
- *Mekanizazio-zentroak*
- *Tornuak*
- *Artezko makinak, etab.*

Zaldispe kalea 10, ARRASATE
Tfnok: 79 67 80 / 79 05 61
Posta kutxa 95. Telefax: 79 80 97

Goian Industrial Poligonoa. 24 Apartatua
Tfnok: 945; 45 54 28 / 45 54 54 / 45 54 53
Telefax: 45 54 74, 01170 LEGUTIO

LASAGABASTER

jantzidenda



• • • • • **Bertan izango duzu beti modako**
gauzarik onenen aukera zabalena • • • • •

Zerkaosteta kalea 1 eta 2, Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55 ARRASATE

IKER

**BAINUGELA
LILURAGARRIAK**



BAINUGELA-ERAKUSKETA:
Udala Plaza z/g, Tfnoa: 79 00 43 ARRASATE